

uztarria

AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA

Hogei urte
aita santuak
Loiolara bisita
egin zuela (3-5)



Hilabetekaria • 2002ko azaroa • IV. urtea • 34. zenbakia • www.uztarria.com



MERKATARITZAREN INDARRA

Dagoeneko milatik gora merkatal gune daude Azpeitian (24-27)



Jostailuak - Paperdenda ♦ Tel. 15 05 30 ♦ Sanjuandei auzuen



**SUKALDEKO ALTZARIAK
BAINUGELAK
HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK**

PEREZ ARREGI, 9 Tfnoa. eta Faxes: 943 15 05 10



**DUEN ORDUTEGIAGATIK
DITUEN ZENTROENGATIK
ESKAITZEN DEN ARRETA BEREZIAGAT
DUEN KALITATEAGATIK**

AZKOITIA

Ibai ondo, 16

AZPEITIA

Pablo VI, 20 behe

Telefonikako eraikinetako bat salgai jarriko da (19)

Josu Bereziartua, Everesten orain hamar urte (20-21)



'Kontxu Odriozola' liburuko bi pasarte (38-39)



Eduarne Ezenarro, gaztagilea (46)

uztarria

1982ko azaroaren 6a egun historikoa izan zen: aita santuak Loiola bisitatu zuen. Hogei urte geroago nola gogoratzen da Azpeitian egun hura?

AITA SANTUAREN BISITAK HAUTSA HARROTU ZUEN



JENDETZA. 1982ko azaroaren 6an 150.000 lagun bildu ziren aita santuak Loiola bisitatu zuenean.

Nerea Uranga

Hiru ordu egin zituen Juan Paulo II.a aita santuak Loiolan 1982ko azaroaren 6an — 09:35ean heli-
du eta 12:30ean abiatu zen heli-
kopteroz Xabierera—. 150.000 pertsona
inguru hurbildu ziren Loiolara.

Joan Amenabar (orduan irakaslea)



“Hainbat oilasko, salda eta kafe alferrikaldu zen”

1982an Karmelo Etxegarai Ikastolako irakaslea zen, gaur egun Urola Ikastolako zuzendaria da. 1979an Kilometroen antolaketa arituak ziren eta eskarmentua bazekuten jendetza hartzen. Horregatik, aita santuaren bisitan postuak jartzeko proposamena jaso zuten eta ikastolarentzako diru iturria izan zitekeela eta animatu egin ziren. “Antolaketa egin zen eta gero hainbat kontakizun, gertakizun, adar-jotze eta barre egite izan ziren. Aurreikuspen batzuk egin ziren, ez dakit zenbat mila pertsona etorriko zirela eta pertsona horiek etorri ziren, baina oso jende berezia etorri zen. Autobusetan etorri zen jendea, presaka eta ilaran, Loiola atzeko belardira joan zen, tokia hartzera bakoitza bere aulkitxoarekin, *fianbrera*, termo eta janari-edariekin. Gero kontatzen ibili ginen ez dakit zenbat oilasko alferrikaldu zirela, zenbat litro salda eta kafe, erreka bota zirenak...”



IÑAKI URANGA

HELIKOPTEROZ. Aita santua helikopteroz etorri zen Gasteiztik Loiolara. Azkoitira bidean dagoen auto eskolako lur eremuan lur hartu zuen, hauts ugari harrotuz.

» Miguel Etxeberria (jesuita)

“Aita santua heltzeko orduan gotzaiak hemen ibili ziren batera eta bestera”

Juan Paulo II.a aita santuaren bisita garaian Loiolan zegoen Miguel Etxeberria jesuita, eta oraindik ere bertan bizi da. Etxe Santura bisitan agertzen direnei ongi etorria eman eta gidari lanetan aritzen da. Hark ere, jakina, gogoan dauka orain dela hogeitaz urteko egun hura. Loiolan aita santuaren bisita zela-eta prestaketa handiak egin ziren, batez ere basilikaren atzealdean. “Guk basilikaren atzealdean sagasti bat genuen sagarrondo batea; sagarrondo asko genituen. Baina, zelai handi bat behar zela eta, zelaia behar bezala antolatzeko sagarrondo guztiak atera genituen, zelaia zuhaitzik gabe eta dena berde utziz. Hor lan handia egin zuena Foru Aldundia izan zen, eta ziur ez dakit baina Eusko Jaurlaritzak ere egingo zuen lanik. Hortik aurrera, gauza asko prestatu behar izan zen; adibidez, abesbatzak kantatzeko, baratza ondoan geneukan baserriko ganbaran abesteko lekua jarri zuten”. Etxeberriak Loiolako Basilikatik eta jesuiten etxetik kanpo denbora gutxi egin izan zuen aita santuaren bisitak iraun zuen orduetan, sartu-irtenean-eta txartel batekin ibili behar izan baitzuten, segurtasun neurri zorrotzak zirelako egun haietan. Aita santuaren bisita egunean Etxeberriaren egite-

liburuko pasartea

Carlos Garaikoetxeak, 1982an EAEko lehendakari zenak, ‘**Memoria politikoak. Euskadi: bukatu gabeko trantsizioa**’ liburu argitaratu du aurtan (Planeta), eta bertan pasarte bat dakar aita santuak Loiolara egin zuen bisitaz. Honatx ia osoa:

Aita santuaren bisita

Egitarauan [1982ko] azaroaren 6a ezarri zen bere [aita santuaren] bisita ospatzeko Loiolan. Prestaketa lanak kontu handiz egin ziren, eta segurtasun taldeko bi mila bat polizi —haien artean Ertzaintza estreinatutako berriko laurhun— arduratu ziren hain bisita arranditsua ongi atera zedin.

Bisitaren egunean aurreikusitako zitezkeen auto ilarak eta zirela medio, eta baita prestaketa lanak bertatik jarraitzeko ere, emaztearekin batera bezperan joan nintzen Loiolara, baita Eusko Jaurlaritzako kideak ere, eta santutegian bertan hartu nuen ostatu; han zeuden euskal apaizak, eta afari alai batedukigenuen haiekin.

Baina gau aldera hasi ziren gauzak konplikatzen, Espainiako Gobernuak behin-behineko presidentea Calvo Sotelo deitu ninduen, balizko atentatu batez informazioa zutela azalduz eta aita santuaren iritsiera eta harrerari buruzko dena aldatzea aztertzea behartuta zeudela. Hain justu, presidentearen kezka egitarauaren zati hori izateak harritzen ninduen ni pixka bat, baina nire harridura susmoan bilakatzen joan zen Calvo Sotelo, disimulatu gabeko kezka, prestatua genuen harrerako detailez galdezka hasi zitzaizkidan, eta, gainera, aita santua iristean *Agur Jauna* euskal agur tradizionala joko zela aipatu nionean, kuriositate handia sentitu zuen jakiteko ea gelidirik edo mugituz joko zen. Nabarmena zen telebista kamerek mundu osorako Eusko Gobernua bere eserkiare-



“Azken unean harrera beste leku batean egitea eskatu ziguten”

Carlos Garaikoetxea (1982an lehendakari EAEn)

kin aita santua hartzen emateak kezkatzen zuela.

Susmoak areagotuz joan ziren Calvo Sotelo bera eta Estatuko Segurtasun arduradun nagusiak —hauek Loiolara etorriak— aita santuari egin beharreko harrerako lekua eta detaileak azkeneko orduan aldatzeko posibilitatez iradokiz hasi zirenean. Ustezko alarma horien sinesgarritasuna txikitzeko, zulamakina bateko pala handi bat lurra batera kuidadorik gabe harrotzen hasi zela ikusi genuen, eta hori ez da oso ohikoa lehergailu baten bila ari denarengan. Are gehiago, hurrengo egunean Mayor Orejari —orduan Gobernuak ordezkaria— aipatu nionean zeintzuk ziren nire susmoak alegiazko atentatu bati buruz, berak nire usteari sinesgarritasuna eman zion, badaezpada Loiolan ez zuela lo egin esatea otu zitzaionean. Beraz, erantzun nion, besteoi han lo egiten utzi diguzue! Egiazki, helikopteroaren

iritsieran atzerapena probokatzeaz gain, azkeneko unean, eta susmatu bezala, bisitari entzutetsuari harrera santutegiaren ondoko beste leku baten egitea eskatu ziguten, segurtasun arrazoi serioak zirela medio. Aita santuaren etorrera baliatuz ez genuenez baieztapen nazionalerako inolako zeremoniarik antolatu, ez genuen arazorik izan gure planak aldatzeko, nahiz eta antolaketak aldetik saihestezineko arazoak izan. Hala, aita santuaren taldeko helikopteroak, bere ekitaldi erlijiosora joana zen jendetza hartzeko prestatu berria zegoen lur eremu zabalean pausatu ziren, eta hura kaos txiki bat izan zen. Musikariakalde bategi bestera ibili ziren instrumentuekin; alfonbra gorri handia lur hartze tokirako zabaltzen ari zirenek beren eginbeharra norabide desberdinetan berriro egin behar zuten, lur hartze inprobisatuaren puntua zein zen asmatu arte; eta komikoena izan zena: helikopteroek lur hartzean harrotu zuten hautsa, gure traje ilunak eta buroak lurrez estali zituen.

Helikopterotik jaitsi zenean, aita santuak ez zuen euskal lurra musukatu askok espero bezala, baina egoera komiko hura umore bikainez aipatu zuen, nire eskuetatik makila jaso eta gero.

Aita santua agurtu zenean, gutako asko pixka bat dezepzionatuta geratu ginen, ez zuelako gure herriaren errealitate politiko eta sozialaren errekonozimendurik egin, eta haren papera oso garrantzitsua zatekeen eremu politiko jakin batzuetan.



HARRERA. Aita santuari harrera egiten Carlos Garaikoetxea eta Jose Maria Setien gotzaina.



AZPEITIARRAK. Azpeitiar ugari bertatik bertara izan zen aita santuaren bisitan.



MEZA GUNEA. Aita santuaren autoak basilika atzean bildu zen jendetzaren artean buelta bat eman zuen meza hasi aurretik. 150.000 lagun bildu zirela esaten da; hala ere, gehiago biltzea espero zen.

- **4.000 ERLIJIOSA.** Lau mila monja inguru izan omen ziren.
- **GALDUTAKOAK.** 50 haur inguru ibili ziren galduta jendartean. Bozgorailuetatik hauen izenak entzun ahalizaten ziren.
- **MINA HARTUTA.** Gurutze Gorriak ospitale mugikor bat jarri zuen, 35 oheekin. Gauean 58 lagunek jaso zuten Gurutze Gorrikoen zerbitzua.
- **POLIZIA.** Aita santuaren bisita aurreko egunean polizi ugari ibili zen Loiola inguruetan. Guardia Zibilaz gainera, 400 ertzain inguru hurbildu zen Loiolara.
- **MILA AUTOBUS.** Hurrengo eguneko prentsan adierazten denez, mila autobus baino gehiago etorri ziren Azpeitira. Urolako trenetan ere etorri zen jendea.
- **SOLDADUAK.** Donostiako Loiolako kuartelean soldadutza egiten ari ziren soldaduek hiru zubi eraiki zituzten Loiolan.
- **50 MILIOI PEZETA.** 50 milioi pezeta inguru gastatu zituen Aldundiak.

koa meza ospakizunean intsentsuaz arduratzea izan zen. Meza antolatu bezalaxe egin bazen ere, beranduago hasi zen, Paulo II.a hiru ordu laurden beranduago iritsi baitzen. "Berandu etorri zen. Zergatik? Harekin Erromatik etorritako batek hala esan zidan: 'Nik esan ahal baneza! Diotenez, segurtasunagatik atera da berandu Gasteiztik'. Aita santua heltzeko orduan gotzain jaunak hemen ibili ziren batera eta bestera. Ez zekiten ziur non jaitziko zen Paulo II.a zetorren helikopteroa. Esklaba inguruan zegoen lur hartzeko lekua prestatuta. Azkenean txofer ikasteko lekua dagoen horretan lur hartu zuen. Une hartan basilika barruan nengoen, ate parean, basilikako atea zabaltu eta organo martxa eder bat jotzeko esateko, baina denbora faltagatik ez zen sartu aita santua. Basilikako eskailerak igo eta Etxe Santura joan zen otoitz egitera. Gero *papamovilean* buelta bat eman jendartean eta meza eman zuen. Mezan esan zituenak egokiak izan zirela uste dut, gauza ederrak eta egokiak esan zituelako".

Luciano Lazkano (alkatea orduan)



"Herriarentzako probetxua ateratzen saiatu ginen"

1982an Azpeitiko alkatea zen. Aita santuaren bisita aurretik izan zen lan gehien udaltxean. "Jakín genuenean aita santua Loiolara etortzekoa zela, herriarentzako ahal zen probetxu gehien ateratzen saiatu ginen. Bagenekien horrek herriari publizitate handia egingo ziola. Gainera, hemen kontu asko Foru Aldundiaren eta herriaren dirutzarekin egiten dira, baina beste gauza asko Madrilén menpe zeuden. Orduan, Loiola txukuntzeko ahal zen diru gehien lortzen saiatu ginen. Obra handienak Loiolan egin ziren, ibaia bideratu, ibaiaren hormak harrizkoak egin ziren, Amena-barreko zubia berria egin zen, baina gai nontzean ez zen apartekorik egin". Baina,

ez zen esperotako jenderik etorri Loiolara. "Izugarrizko jendetza espero zen, baina ez zen hainbeste etorri. Beharbada, telebistan eta prentsan agertu zen, eta hor izan zuen bisitak nolabaiteko oihartzuna". Bisitaren unean izandako istiluak ere gogoan ditu. "Madrilgo Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean istilu izugarriak izan genituen. Izarra aldean ongi etorria egitekoak ginen, musika banda prestatuta zegoen *Agur jaunak* jotzeko, eta gero lehergailu baten aitzakia zela eta ez zela, presaka, auto eskola pistara joan behar izan genuen, helikopteroak han lur hartu behar zuela eta. Bezperan ere kezka pixka bat bazen. Jose Antonio Ardanza bezperan etorri zen, lagun bezala gure etxean egon zen, gero Imanol Murua ere bai, elkarrekin ibili ginen goizaldea arte Loiolara joan eta nobedaderik ba ote zen ikusten; ez zen aparteko ezer izan. 1981eko otsailean Espainiako erregea Loiolara etorri zenean istiluak handiagoak izan ziren. Araua betez, aita santuaren bisita aurretik Espainiako erregearen bisita izan baigenuen". ●

amuko zubitik Jabier Altuna



ERANTZUN POSITIBOA

Azken egun hauetan gertatutakoak ikusi eta entzun ditudan astakeriak entzun ondoren (Garzon epailearen azken okurrentziaz eta honen inguruan esan diren gauzez ari naiz), azkena irakurri dudan liburuan aurkitu nuen kontu bat etorri zait burura; kontu honen ondorioak bizitza pertsonalean, lanean, edozein arlotan erabil ditzakegula iruditzen zait. Liburuaren gaia ez zen politika baina bizi dugun gatazka aipatzen zuen; irtenbiderik ez daukala alde bakoitzak erantzukizun guztia besteari botatzen dion bitartean, zioen idazleak.

Nazien kontzentrazio kanpoetan urteak pasatu eta bere familia hiltzen ikusi zuen psikologo judutar baten kontua zen; han bizi, ikusi eta jasan zituen gauzen artean ere, askatasun eremu bat gelditzen zitzaiola erabaki omen zuen. Bera, bere familia eta bere herria jasaten ari ziren zapalkuntzaren aurrean bere

erantzuna nolakoa izango zen erabakitzeko ahalmena; bere esku omen zegoen barruan sentitzen zuen amorrua, gorrotoa nola bideratu; ikusi zuena errepikatu edota beste erantzun mota bat eman. Gorroto horrekin ezin zuela bizi eta erantzun positiboa bilatzea erabaki zuen. Egoera zailenean ere ekintza positiboak bilatu behar direla; gure ekintzak pertsona bezala gaiztotzen bagaitu ez direla bidezkoak; eta epe luzera erantzun positibo hori dela emankorra helburuak lortzeko zen idazlearen tesia.

Esan behar dut kontu hori irakurtzeak itxaropen pixka bat eman zidala; gauzak bere neurrian hartzen erakutsi eta perspektiba pittin bat behar dela edozer gauza epaitzerakoan eta aztertzerakoan (batzuetan ahaztu egiten baitzaigu) ikusarazi zidan. Orain, beti bezala, zailena, eguneroko bizitzan hori praktikan jarritzea izango da.

azketako ude Ainhua Odriozola



ZER IKUSI, EDO... NOLA IKUSI

Azkenaldian gure lagunarteko kafetxo, afa-loste eta tertulietan oro har, telebistako programek tarte handia hartu dute. Ez dakit irakurleoi berdin gertatuko zaizuen, baina koadrilan, zenbait programei buruz luze hitz egiten da; sarritan eztabaidatu ere bai. *Anai handia, arrakasta operazioa, pop izarrak...* eta hauen satellite diren *kotilleo* saioak ahaztu gabe; telebistan oraintxe ez baitago besterik. Beti, asteko nobedadeak komentatzen hasten gara, "ondo abesten du baina badaki"... Gero, orokortuz saioen atzean dagoenaz hipotesiak eginez: "Famaren bila doaz", "morboaren bila doaz"... Ondorioak: "Lotsagarria da", "telebista publiko batek horrelakorik", "gaizki zagon, baina astelehen gauerako zer nahi dun ba!".

Elkarriketa hauek errepikatzearen poderioz bi gauza ditut argi. Bat, aurtengo edizioak ez ikusteko promesa tinkoa mantenduko dudala, denbora era probetxugarriagoan erabiltzeko bada ere. Ez ikustearen aldeko kanpainak

rik ez dut egin nahi ordea, bakoitzak ikus dezala nahi duena, libre da eta. Bi, aurreko edizioak *engantxatuta* jarraitu ditut eta esateak ez nau gorritzen. Gauzak ezagutu egin behar direlako haiez hitz egiteko, eta (hor dago gakoa) ikusteko moduak edo perspektibak gauza asko aldatzen duelako. Garbi eduki behar da, saio hauen helburua ez dela entsegu soziologiko bat, edo artisten promozioa... helburua audientzia da, eta telebistan hori diruaren sinonimoa da. Gainera, errealtate itxura badu ere, bertako protagonistak eta istorioak ez dira benetakoak (nahiz eta benetako diskoak atera) telebistaren iragazkiak birtual, fikziozkoak bihurtzen baititu. Guztia joko erraldoia da, partehartzaileak, kazetaria eta ikuslegoa zaku berean sartzen dituen. Honekin ados bazaude irakurle, ados egongo zara norberaren aukera dela saio hauek ikustea ala ez diodanean ere, baina ikuspuntua aukeraturaz, zakuaren barrutik ala kanpotik alegia.

puntie ateaz

Enekoitz Esnaola

AZPEITI, POLITT HORI

Azpeiti, orain urte batzuk xakel batek —Juan Luis Zabala *Pipi-k*— *Azkoiti, politt hori* artikulua xarmanta idatzi zian *Egunkaria*-n, eta heuk ere, *Azpeiti* xahar hori, merezi duk zerbait idaztea, bestelakoa bada ere. Izan ere, duela gutxi ez genianba irakurri "*Azpeitia* berria egiten" ari direla. Obrak hemen, etxe berriak han... *Politt-politte* jarriko omen haute. Baina, bitartean, Carasusaneko eraikin handi hori hor zagok etxea erosteko arazoak dituztenei irain egiten, goitik behera harro begiratur bezala. Eta azoka plazako eraikin grisa hor zagok utzita, berak kulparik eduki gabe baserritarrei barkamena eskatzen, lotsatuta begiratur bezala. Udaletxea bai, udaletxea berri berri ditek, baina, aizak, pasilloetatik ez ditiztek kendu *Paisajes españoles* koadroak. Igual *politto* haiz koadro horiekin.

bota bertsue

Leire Ostolaza

TOPAKETAK

Bizkarrean harturik zaku ta motxila bertsolari gazteak lagun berri bila astebukaerako goaz Urrestilla nahi duena festara etorri dadila.

Pako Aristik presta digu hitzaldia Agirre ta Lazkanok bertso-afaria egitaraua ez da tamainaz handia baina ezetz aspertu joaten den jendia.



! ARRAINAK HILDA. Urriaren 14an, beste behin Ibai Eder ibaian eta Urola ibaian, azoka plaza inguruan, arrainak hilda agertu ziren. Zenbatetan gertatu behar du honek neurriak hartzeko!

‘KARAKOLEAN’ BIZIKLETAN. *Karakolean* goitik behera jaistea debekatuta dago auto-entzat. Baina bizikletan hainbat gaztetxo ibiltzen da. Neurririk hartzen ez bada egunen batean egundokoren bat pasatuko da.

? **HARTZUBIAN SUA.** Ez da aurreneko aldia Hartzubiko etxebizitza berrien atarian sua izan dela. Lehen, haurren jolas parkea erreta; orain, etxebizitzak belztuta. Zer dela-eta toki berean denbora gutxian bi sute?

kartak

Joko japoniarrak

Idaztera natorkizue txupinazo egunean ikaratuta gelditu bainintzen joko japoniarrak zirela eta. Harrituta gelditu nintzen zer-nolako zaparrada ateratzen zuten eta umeak zein gertu zeuden suziri hauengandik.

Segurtasun kontuak direla eta, hainbat aldaketa nabari ditugu gure bizimoduan. Ziur egon oraindik Azpeitiko suzko erroberak Azkoitian botako dituztela eta Azkoitikoak Azpeitian.

Txupinazo egunean Oñartzetik (Eperratik) irtetzen ari nintzela sekulako eztanda entzun nuen, pentsatuz umeren batek txupinazoko lehergailu sueltoren bat lehertu zuela. Baina ez, han zegoen udal langile bat, baita garbigailuarekin eta koheetekin zarata ateratzen aditua ere, bere alaba ondoan zuela delako joko japoniarrak sutzen. Hau dena, plazako kiosko aurrean, hiru hesiren barruan.

Itxaferoak erosteko nortasun
agiria behar bada, laster ikuste-
ko pasaportea beharko dugu.

Ikaraturik, gauean koadrilan komentatu nuen, denek barre egin zidaten beldurtia banintz bezala. Baina hauek hogeititik gora daramatzate joko hauek ikusi gabe.

Hau guztia idaztera bultzatu
nauena zera izan da: joan den
asteen 11 urteko mutiko bat hil
baita suziri batek jota. Suziriak
150 metro gorantz irten beha-
rrean, albora irten duelako! A
zer-nolako barregurea!

Besterik gabe, dagokionak neurriak hartuko dituelakoan agurtzen naiz.

Ni neu behintzat, Oñatzeko puntan egongo bainaiz egun horretan.

Iñaki Uranga ‘Zaldiye’

Emakumeok...

Lan bera egiteagatik, gizonezkoek baino gutxiago kobratzen dugunean; etxeko lanen ardura gure gain uzten denean; gure lan aukera bakarra prekarietatean murgildutakoa denean; hainbat eta hainbat enpresatariko ateak ixten zaizkigunean;

atzerritik lan duin baten ilusioz
etorri eta gure gorputza saltzera
behartzen gaituztenean; jaiotzen
garenetik balore zehatz batzuk
barneratzera behartzen gaituzte-
nean; kirolean nahi kulturaren
bigarren mailako herritartzat
hartzen gaituztenean; gizon-
ezkoentzat eginiko presondegi-
etan zigortzen gaituztenean;
politikoei berdintasunaren bideak
pausoak ematea itxuratu eta
betetzen ez dutenean; udaletxe-
tan diskriminazioarekin bukatze-
ko bideratzen den dirua %0,0
euro denean; herriko jaietan
partehartzea ukatzen zaigunean;
nahigabeko haurdunaldia etetea
ukatzen zaigunean; publizitatean,
salmentarako tresnatzat hartuak
garenean; Osakidetza behar ditugun
zerbitzuak eskaintzen ez dizki-
gunean; txisteekin, abestiekin
nahiz ipuinekin irainduak gare-
nean; mozkorren aitzakiaz *babosoak*
jasan behar ditugunean; kalean
beldurrez ibiltzen garenean; sexu
harremanetan gure ezetza aintza-
kotzat hartzen ez denean; hizkuntza
sexisista erabiltzen denean; gure
gorputza nahiz janzkera era ze-

hatz batekoaizatera mugatzea-
gatik gaixotzen garenean;...
Erasotuak gara!

Eta zer esanik ez esku luzea eta buru motza duten gizonezkoek sortzen dizkiguten arazo guztiekin.

Emakume, ziur zuri beste arrazoiren bat bururatzen zai-zula azaroaren 25ean kalera ateratzeko!

Eraserik ez!

Izarraizpeko Sorginak

Kirola mintzagai

Udaletik kirolaren inguruan hitzaldi bakarra antolatu aurretik eta bera [kirol] enpresa pribatu batzuen interesak eta beharrak gizarteak nola asumitu (inposatu) behar ditugun azaltzeko. Ematen duenez ez dago kirolaren inguruan beste gairik, pista batzuk: eskola kirolaren kudeaketa, eliteko kirolaren arriskuak, kontraesanak, kirol estremoak eta ingurugiroaren arteko hartu emanak.

Mikel Uralde

akullue



Leire Ostolaza

INFORMAZIO ITURRIEN AROAN

Askotan entzun izan dugu informazioaren gizartea dela gurea eta dagoen baliabide kopuruagatik hori egia dela ziurta dezakegu.


Mota askotako berriak jasotzen ditugu egunero, iturri desberdinetakoak eta helburu desberdinekin emanak nire uste apalean. Honezkero denok konturatuta gaude informazio iturri bakoitzak zein aldetatik begiratzen dion berriari eta zein alde ezkututzen duen. Errealitatea bera ere halaxe ikusten dugu eta gertakizun bakoitzaren aurrean bertsio ezberdinak izatea gauzarik normalena da. Hori horrela izanik, bakoitzak bere senari jarraitzen diogu gure egiaren bila, entzundakoaren eta ikusitakoaren arteko oreka aurkitu nahian.

Arazoa ordean, gaurko gizarite etxezulo telebista jalean azal daiteke, etxetik lanera eta lanetik etxerako bide estu horretan, kalean ikusten denaren informazio puntua galtzen duela. Kasu honetan, bi edo hiru iturri gehiagotako informazioa jasoko du, baina beti egongo da moldatua.

Informazioaren aroan bizi garen honetan jende askok lanak izaten ditu irakurtzen edo entzuten duena sinesten, eta ikusten duguna zenbaiteraino den egia ere zalantzan jartzen hasiak gara.

inkestie

Behobia-Donostia lasterka proban atera behar al zara? Zenbagarren aldiz aurten?



Aitor Gurrutxaga

(langilea)



“Behobian aterako naiz. Baina orain batez ere Donostiako maratoirako prestatzen ari naiz. Azken sei urteetan lau aldiz atera naiz Behobian”.

Aitor eta Leire

(langilea eta etxeko lanak)

“Behobian irtengo gara aurten. Baina bestela ere urtean zehar lasterka ibiltzen gara. Aurten hirugarren aldiz aterako gara Behobian”.

uztarria.com-eko eztabaidie

GAIA: Uztarria Kultur Koordinadoraren web guneko ‘eztabaidan’ Foru Aldundiak egin asmo duen bidegorri sarearen inguruan sesioan dabiltza. Hona hemen gutun horietako sorta bat:

Polita izan daiteke

Ondo iruditzen zait bidegorriaren kontua, ondo eginez gero polita izan daiteke. Bizikleta erabiltzen erakutsi behar zaie gazteei, Saihesbidearen kontua ez zait gustatzen, nahiz eta gero denok erabili.

Kontxo

Beti atzetik

Kontxok dioenak ez dit balio; alegia, saihesbidea egiten baldin bada gero denok erabiliko dugula. Ez. Orduan berdin da nolako txikizioa egiten duten, denborarekin isildu eta denok erabiliko dugulako. Ez. Kontuak horrela, motordun autoak mugatu eta denok bizikletan edo zaldiz ibiliko gara herrian, denborarekin horretara ere ohituko gara. Azpeitia leku ederregia da saihesbide batek suntsitzeko. Eta bidegorriari buruz, dirudienez Europan bidegorriak egiten ari dira, baina hemen beti bezala beti atzetik.

Cher-The Mask

ea ondo irizten diogun edo ez. Kontua da berandu bada ere baliogarria izan daitekeen edo ez. Gauzak berandu egitea (baina egitea) ez egitea baino hobea dela irizten diot nik behintzat. Hala ere, ikusi egin beharko litzateke nondik nora egiten duten bidegorria, nolakoa, zenbat kostatuko den... Izan ere, oso ondo dago Zumaiatik Zumarragara bidegorria egitea, baina egokiagoa irizten diot Urrestillatik Sanjuandegira, edo plazara edo Aranara egitea, alde batetik eguneroko bizitzan autoa ez hartzeko aitzakia litzatekeelako eta bizikleta herri barruan indartu behar delako. Izan ere, jakin behar dugu bidegorri horiek azpiegitura ideiarekin egiten diren, edo kirol azpiegitura hutsak diren.

Joxemai

Herri inguruan hobe

Ez dut uste Zumarragara edo Zumaiara jende askok ibiliko lukeenik bidegorria. Herri barruan eta inguruan izan beharko luke.

Ni neu

Auzoetara egokiagoa

Maskara jartzeko denean maskara jartzeko delako. Botoak irabazteko denean botoak irabazteko delako. Baina kontua ez da hori. Kontua da

Herria zeharkatuz

Herri inguruan edo Urrestilla aldera erakargarriagoa izango litzateke, leku politagoa eta hobe delako. Zumarraga edo Zumaia aldera bi-

Natxo Odriozola

(langilea)

“Ez, aurten ezingo dut Behobian irten. Beste urteren batean aterata izan naiz. Lasterka beti ibiltzen naiz, baina batez ere mantentzeko”.

Xabier Gorrotxategi

(langilea)



“Ez nago seguru aurten Behobian aterako naizen. Bi aldiz irten dut. Baina bestela ere ibiltzen naiz lasterka”.

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTA

1. GALDERA: Ba al duzu telefono mugikorrik?

- Bai: %60
- Ez: %40

Miguel Anjel Aizpuru

(langilea)



“Behobian ateratzeko ari naiz entrenatzen. Dagoneko zortzi aldiz irten dut”.

Iñigo Medinilla

(langilea)



“Behobian ateratzeko asmotan ari naiz lasterka. Ikusiko dugu. Orain arte lau aldiz egin dut Behobia-Donostia”.

Antonia Garcia

(langilea)



“Ez dut Behobiako lasterketan ateratzeko asmorik. Inoiz ez dut egin Behobia-Donostia lasterketa.

Lasterkan ibiltzea gustatzen zait eta horregatik ibiltzen naiz”.

Amaia Goenaga

(ikaslea)

“Lehen aldia. Aurten animatu naiz irtetera. Lagunak-eta ateratzen dira, eta aurten neuk ere irten-go dut. Ea ondo bukatzen dudan”.

“Gauzak berandu egitea (baina egitea) ez egitea baino hobea dela irizten diot”

Joxemai

“Bidegorria herri inguruan edo Urrestilla aldera erakargarriagoa izango litzateke”

Noaaaaaa

“Bidegorriak herri barruan bizikletaz ibiltzeko erraztasuna eman beharko luke”

Naxi



degorria egitea ez da egokia: autoak aldamenean ziztu bizian pasatzen eta, gainera, urrutiegi daude. Hobe da lehenengo Azpeitia eta ingurua bidegorri on batez hornitzea, herri barruan bide luze bat eginez, herria zeharkatuko lukeena eta oinezkoek benetako preferentzia izanez.

Noaaaaaa

• Bidegorriak herri barruan bizikletaz ibiltzeko erraztasuna eman behar luke.

• Bizikletarena serio aztertu beharreko alternatiba izango da. Batik bat aurrera begira. Azpeitia, espazio aldetik, asko ari da hazten, etxe asko daude zentrotik urruti samar. Horregatik, eta jendeak etxetik irten orduko autoa hartzen duelako ere bai, gaur egun ezinezkoa da kalean lasai ibiltzea (oinez ez ezik, autoan ibiltzea ere *desesperantea* da). Alternatiba bat da bizikleta. Donostian, motoa ez ezik, gero eta gehiago erabiltzen omen da bizikleta.

• Zer esan nahi du bizikletaren alternatiba serioa izateak eta bizikletaz ibiltzeko erraztasunak emateak? Adibide batzuk: alde zaharra autoei itxi; bidegorria auzoetatik (Sanjuandegi, Landeta, Loiola, Urrestilla...) zentrorra jarri; bizikletentzako aparkalekuak jarri herrian, batik bat zentroan; bizikletaren erabilerak bultzatu, autoen erabilerak mugatu...

Naxi

Hemen inguruan egin

Niri ere egokiago iruditzen zait Nuarbe aldera egitea bidegorria. Eta Nuarbe aitatu dudala, Urrestillatik aurrera badago tarte bat jendea bizikletan beldurrez pasatzen dena, oso hestua baita, eta kamioiren bat egokituz gero tarte horretan zer esanik ez... Bidegorria Zumarraga aldera egitea izugarritzko aldrebeskeria dela iruditzen zait. Bidegorria Nuarbeko urtegi aldera egingo balute, berriz, izugarritzko buelta polita izango litzateke bizikletazaleentzat.

Pott

Bizikleta alternatiba da

Garrantzitsuen Joxemai esandakoa da: azpiegitura asmoarekin egitea bidegorriak. Hala ere, badira kontuan hartu beharreko batzuk:

hausnartzen

GAIA: 'Kultura' Nolakoa da herriko kultur dinamika? Kultur etxea beharrezkoa al da? Beharrezkoa bada, nolakoa? Zeinentzat? Zer da kultura?...

Oharra: hurrengo zenbakian ere eztabaida hau sartu nahi dugu Uztarrarian; beraz, idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera

KULTURA MAILAN EGITEKO ASKO DAGO; KULTURAN ERE INBERTITU EGIN BEHAR DA

Azpeitia eredugarria izango da hainbat alorretan baina ez behintzat kultura mailan duen jarduna edo azpiegitura alorrean dituen erosotasun eta baldintzengatik.

Ez du horrek esan nahi herrian ez dagoenik kultura mailako kezkarik eta lan asko egiten ez denik: dantza, antzerkia, musika, bertsojaritza, literatura, argazkia, zinea... zerrenda luzea da eta urte askotan ari da lanean jendea. Hala ere, zeinen gutxi dakigun elkarren berri. Bakoitza geure zilborrari begira ari gara. Ez dago koordinazio minimorik, ez informaziorik eta tamalez horretan orain arte egon diren udal ordezkariak edo ez dute asmatu edo ez dute gutxienez aurrerapen handirik erakutsi. Arrazoi horrexengatik sortu zen Uztarrria Kultur Koordinadora —Erniarraitz Bertsozale Elkartearen kide da bertan— eta hortik sortutako Uztarrria herri aldizkaria eta bere webgunea dira bere emaitzarik nabarmenak. Azken urtean Aitor Gorrotxategi, kultura zinegotziak erakutsi zizkigun hainbat talderi udalak zituen asmoak eta hogeitaz geroago bada ere Basozabal Kultur Etxe gisa ikusteko ametsetan hasiak ginen, proiektuak eskatu zizkigun eta etxea bera ikusten izan ginen bere antolamendurik egokiena zein izan zitekeen erabaki aurretik. Ez dirudi ordea, amets hori oraingoz gauzatuko denik. Ez dago dirurik kulturarentzat. Sarriegi falta izan da, baita orain ere.

KULTUR ETXEA. Zertarako behar dugu kultur etxe bat? Euskal kulturarekin kezkatutik dauden, bakoitza ari den arloa dena dela ere, guztiek espazio baten inguruan ibiliz eta beronen erabilera egoki baten bidez elkar ezagutu eta animatzeko biderik egokiena delako eta elkarrekin proiektuak gauza daitezkeelako. Horretan ziren asmoak, dinamizatzailerik bat tarteko, oso ideia onak izan zitezkeen baina ez utopikoek amets egiteko, ez, benetan behar delako baizik. Euskaldunok oro har, eta azpeitiarrok ez gutxiago, oso harro agertzen gara euskaldun izateaz baina, pentsatzen jar gaituzten zein diren euskaldun baten berezitasunak, euskaldun egiten gaituzten eta gure aurrekoek gureganaino ekarri dizkiguten altxorak. Gureganaino ekarri dizkigutenei zor diegu baina gehiago gure ondorengo belaunaldi, ondasun horiek guztiek hobetuta, egokituta, gaurkotuta eskaintzea. Berez ez da ezer etortzen. Globalizazio oker ulertu baten izenean, espainiar edo amerikar kantarien kantuak, espainiar telebistetakako saioak, atzerriko ohiturak, izango dira gure gazteen artean nagusi dabilzanak. Gero damutuko gara behar bada baina ez dadila beranduegi izan. Kulturaren inbertitza diru galtzea dela usteko du batek baino gehiagok. Noski epe laburreko etekinari begiratuz ari denak, baina ez inteligentzia pixka bat erabiliz luzera begiratzen duenak. Azpeitian ez dugu kultur etxerik, aspalditik hasitako bidea den arren *Imanol Elias* liburuan bertan irakur dezake nahi duenak,



noiztik diren asmo horiek abiatuak. Kulturarako espazio barreiatu batzuk baino ez ditugu eta baldintza nahiko eskasetan asko. Merezki du kulturaren inbertitza, gure herriaren nortasunean inbertitzen delako, etorkizunerako inbertsioa delako.

Kultura mailan asko aurrera dezakegu, elkarren berri izanez, elkarrekin gauzak antolatuz. Udalak suspertzaile eta koordinatzaile zeregina bete behar luke eta ez limosna banatzailearena. Hau ez dezala inork kritikatzat hartu, ez doa inoren aurka, neure uste bat azaleratu baino ez dut egin.

“ Ez dago dirurik kulturarentzat. Sarriegi falta izan da, baita orain ere. Merezi du kulturari inbertitzea, gure nortasunean inbertitzen delako”

Laxaro Azkune

“ Kultur talde asko dago, baina nahiko egoera pattalean daude, salbuespenak salbu. Ez dugu lortu taldeok jendearekin identifikatzea”

Aitor Bereziartua



Elkarren konfiantza indartu eta denok lanera, izango litzateke nire eskaria oraingoz eta gure diruek aurki dezatela noizbait kulturari gastatuak izateko zoria eta ez beti, lurrian, asfaltoan eta bestelako azpiegituretan bakarrik. Euskal kulturak oraindik hotz handi xamarra pasatzen ditu eta badu garaia beharpenetan bada ere jantzi bila hasteko.

KULTUR MENU ESTANDARRA

Kultura, jende talde baten ohiturak (edo jokamoldeak) dira: jateko, edateko, bakoitzaren barruko *demonioak* domatzeko, denbora-pasarako, pertsonen elkar trukeko... Azken finean, elkar bizitza arautzen (eta askotan mugatzen) duten ohitura edo jokamolde mordo baten multzoa da.

Orokorrean azpeitiarrok nahiko itxiak eta elkarren arteko tratutarako aldrebessamarrak gara, *menu* batean eskainitako *kulturaz* konformatzen gara (gauza berriei beldurra diogula dirudi). Hala ere, badaude zenbait talde herrian, normalean espontaneoki sortuak, *menu* horretatik kanpo zerbait eskaintzen ahalegintzen direnak. Herrian, *kultur* talde asko dago, baina nahiko egoera pattalean daude (salbuespen batzuk izan ezik). Patal, zergatik?:

- Taldeak antolatu eta ekintzak garatzeko azpiegituren beharrean daude.
- Herriarren inplikazioa txikia da (batez ere, partehartzea).
- Ondorioz, taldeetan gauza berrietarako ilusioa murrizten doa.

Kultur azpiegituretan, batez ere, bi hutsune handi nabari dira:

- Kultur etxea: taldeen lana garatzen laguntzeko lokalekin.
- Ikuskizun aretoa: 300 bat pertsonentzako areto bat (antzerki, musika, dantza eta abar egiteko egokitutako aretoa). Honela, herriko eta kanpoko jendearen lanak aurkezteko aukera izango litzateke bertan (... *menutik* kanpoko lanak, hain zuzen ere).

Herrian dagoen kultur eskaintzan hobetzeko asko dago. Hiru atal garrantzitsu, batez ere (bata bestearekin lotuta daudenak):

- Udalak, taldeak herria aberastu dezaketen kultur talde bezala hartzea (ez dirua irabaztera doazen talde gisa) eta beren lanean jarrai dezaten laguntzea. Honekin, herriko kultur plangintza egiteko orduan taldeek parte hartuko lukete.
- Taldeok elkarlanerako ireki beharra dugula eta egiteko lan asko dagoela ohartzea (kasu askotan, udala eta herriko jendearen inplikazioa eta partehartzea lortuz). Autokritika moduan, berriz, arazo guztien errua besteei botatzeko ohitura izaten dugu (eta askotan gure errua izan ohi da).
- Jendearen harrera. Ez udalak eta ez taldeok ez dugu lortu herriko jendea taldeekin identifikatzea (salbuespenak salbu). Jendeak ez du interes handirik, ez udaleko ekintza askorekin ez eta herriko taldeen ekitaldiekin ere. Gero eta errazagoa egiten zaigu aurrez prestatutako *menu kulturala* irenstea (telebista, zine komertziala, partehartzea bultzatzen ez duten ekintzak...), honek epe luzera herri mailako talde edo ekintzetan interes txikiagoa izatea dakar. Bai udal eta kultur taldeen lehenengo lanetako bat jendeak taldeetan parte hartzeko bideak erraztea da, bestela ez dugu inoiz jendearen benetako inplikazioa lortuko. Betiko aurrez prestatutako *menu kultural estandarra* kontsumitzen jarraituko dugu (ondorioz, gure ohiturak ez dira gureak izango, baten batek *diseinatutakoak* baizik).

Laxaro Azkune (Erniarraitz Bertsozale Elkarteak)

Aitor Bereziartua (Urrestillako Musika Taldeak)

LAU AKAZIEN PATIOA

1975-2002

Fiskalak heriotza zigorra eskatu zuen, tribunalak kondena hori ezarri zion, eta Francisco Francoren baimena baizik ez zen behar fusilamentua konplitzeko. Ministroen kontseilua ostiraletan izaten zen eta abuztuaren 28tik aurrera Anjel Otaegi, Burgosko espetxean eta presoek Submarinoa deitzen zen eraikuntza-ko ziegetan isolaturik, agindua noiz emango ote zen zain zegoen. Ostiralen batetan hartu beharko zuten Anjel eta beste kartzelatan kondanatuta zeuden beste lagun batzuk hiltzeko erabakia, baina hainbat ostiral pasatu ziren erabakirik gabe.

Patio de las Cuatro Acacias deitzen zen preso-sondegiko patioa, eta esaten zen gerra zibilean jende asko fusilatu zutela bertan; milaka zulo zituen hormak bihotzaren alturan.

Patio hartan lagun euskaldun batzuekin ibili zen alde batetik besterako paseo motzetan oraindik. Hiltzen banaute, zer jarrera hartu behar diat azken unean? galdetu omen zuen egun batean. Eta lagunaren alboan ibiliz, eta pausu arinez zebiltzan, inora heldu nahi balute bezala, batbatean negarrez ere hasi omen zuen.

Baziren mobilizazioak Euskal Herrian, eta Europan zehar, baina ez ziren nahikoa izango. 1975eko irailaren 26an bere ziegatik atera zuten eta, bost funtzionarioek, *kapilla* izeneko zelda aparte batera eraman zuten. Han bakar bakarrik geratu zen eta orduan jakin zuen azken gaua izango zela eta hurrengo goizalban hilko zutela.

Funtzionarioek galdetu zioten ea apezaren bedeinkazioa nahi zuen. Anjelek ezetz esan zuen, etahan agertu zen apeza, sotana beltzean goitik behera botoi ilara bertikala, peregrinazio modukoa. Ez dut bedeinkaziorik nahi, esan zuen Anjelek, apeza frankista delako eta konfesatzeko ezer ez dudalako.

Gau hartan ama ere ikusi zuen. Ama Maria utzi zuten sartzen bakarrik, Euskal Herritik etorritako beste ahaide eta lagunik ez. Zazpi militarren artean hitz egin zuten apur bat Anjelek eta amak. Ama ez zen ia hitz egiteko gauza, ume handitu hura azkenekoz ikusten zuela jakinda une hartan. Ama negarrez eta ahituta zegoen, Ama, zu lasai ibili, eta ez etxean geratu, lotsatzeko arrazoirik ez duzulako, esan zion semeak, Euskal Herriaren alde ibili naizelako

“Ostiralen batetan hartu beharko zuten Anjel eta beste kartzelatan kondanatuta zeuden beste lagun batzuk hiltzeko erabakia”

“Hogeita zazpi urteko atzerapena eskatu duzu, esango zion militarrek, ba hogeita zazpi urtekoa emango dizu Espainiak”

hilko naute eta. Berehala amaitu zen bisita, unebatizan zen.

Ea nahiren bat zuen galdetu zioten orduan militarrek. Pattar apur bat eta zigarroa, esan zuen Anjelek. Gero zigarroa ezpainetan eta pattarra edanez esan zuen, Eska dezaket besterik? Militar batek erantzun zion: Eskatu. Anjelek jolasean bota zuen: Ez hiltzea gaur. Noiz nahi duzu ba hil? Hogeita zazpi urte barru.

Militarrak, nahi hori konplitzeko, kontsultak egin behar zituela esan zuen, baina baiezkora-ekin itzuli ziren handik laster. Exekuzioa normalki konplitu zela esango zen, ofizialki, esamesak ere zabalduko zituzten zelan gertatu zen, espetxeko hormara ailegatu orduko oihu egin ziotela: Otaegi! Eta Anjelek buelta eman zuenerako tiro egin ziotela.

Ez zen gertatu zenaren lekukorik izan. Ahai- de batzuk gorpua- ren zain geratu ziren Burgosen. Ez zieten espetxe inguruan egoten utzi, baina goizeko zortzietan espetxearen atera itzuli ziren. Anjel hilda zegoela esaten zieten, baina ez zieten gorpua ikusten utzi. Arratsaldeko lau eta erdietan abiatu zen hilkutxa Burgosetik Euskal Herrira, denak ilaran joan ziren, guardia zibilak aurretik, ehorztetxeko autoa, gero guardia zibilak, eta gero ahaideak eta lagun azpeitiarrak. Gaueko hamarrek aldera ailegatu ziren Nuarbera. Eta Nuarbe ere guardia zibilez beterik zegoen, eta ez zioten inori hilkutxa irekitzen utzi. Baten batek esan zuen odola zeriola kaxari. Halakoak imajinatzekoa zen gi-

roa. Baina ezin izan zuen inork Anjelen gorpua ikusi.

Anjel kristalezko edalontzi hura pattarra eta zigarro hura hatzen artean egongo zen kapi-llan zain. Heriotzara kondenatuaren nahiak konplitu behar direla eta, ez zuten fusilatuko egun hartan. Hogeita zazpi urteko atzerapena eskatu duzu, esango zion militarrek, ba hogeita zazpi urtekoa emango dizu Espainiak, Espainia txarra dela pentsa ez dezazun.

Eta ziegan inkomunikatuko zuten, *Patio de las Cuatro Acacias* hartan, Submarinoan. Munduko lekurik tristeena izango zen hura, baina irratia entzungo zuen batzuetan, kazeta zaharren bat lortuko zuen besteetan, eta ilusioarekin biziko zituen albisteak. Francisco Franco hilda, harrezkero monarkia parlamentarioarekin Espainia aldatzen ari zela enteratuko zen. Amnistia eman zutenean, presoek oihuak eta gorak entzun zituen beste galerietan. Anjelek funtzionarioari galdetuko zion: Amnistia eman dute?

Baina zuretzat ez, erantzungo zioten. Gero Konstituzioa proklamatuko zen eta, Konstituzioaren arabera, heriotza zigorra abolituko zen. Hala ere jendea hiltzen jarraituko zuten, era batean eta bestean, Intxaurrendoko kuartelean edo Bidasoa ibaian, torturatuta edo ito- ta.

Estatutuak ere kontzeditu ziren eta, Anjelek ilusioa izan nahi zuen eta, ea demokrazia hark denei askatasuna emango zien galdetzen zuen batzuetan.

Zer, noiz utziko nauzue libre?

Agindutako egunean.

Ama hil zela jakin zuen egun batean.

Eta *Patio de las Cuatro Acacias* hartan egongo zen, munduko lekurik tristeenean, kuartel, eta komentu, eta kartzela, eta adreilu zahar eta lixiba usain harekin, hari eta gaur arte, hogeita zazpi urte geroago, agindutako eguna heldu eta sententzia beteko den arte.

Gaur bete da, goizeko lehen argiarekin eraman dutenean hormara. Pattarrak gabe, zigarrorik gabe eta beste, ezelako nahirik konplitu gabe. Eskerrak eman Espainiari, azkeneko hogeita zazpi urteotan bizitza barkatzeagatik.

2002ko irailaren 27an, ostirala. Lekukorik gabe hil dute. Gerra zibileko fusilamentuen markak ikusteko astia izan du apur batean, hormara ailegatu orduko egin diote deiadar:

Otaegi!

Eta tiroak jaso ditu Anjelek buelta eman duenerako, bihotzaren alturan denak. Eta azken unean ezelako jarrerarik hartzeko astirik gabe hil da.

Joseba Sarrionandia
(Idazlea. Egunkaria, 2002-09-27)



BADUZU NON AUKERATU

Garmendipe Kalea, 1 20730 Azpeitia Gipuzkoa
Tel. 943 15 71 15



gotain
LURRINDEGIA

Erdikalea 3. 20730 Azpeitia Tel. 943 814 35

Udal erabakiyek

Familiako baten galearen aurrean talde dinamika sortu nahi da

Udaleko Gizartekintza Sailak ekintza berriak antolatu ditu udazkenerako. Tartean talde dinamika proiektu berri bat jarri nahi da martxan, eta familiko baten (seme-alaba, anaia-arreba, guraso...) heriotzaren aurrean sufritzen duten pertsonen zuzenduta dago. Gizarte Zerbitzuetatik jakitera eman denez, "familiko edo kide baten heriotza etengabeko esperientzia da, baina gutxi landua, ikertua edo hausnartua. Beraz, heriotzak gertutik uki-

tzen duenean, familian *shock* bat sortzen da, batzuetan krisialdi bat sortuz". Eta talde dinamika hori sortzearen helburua, pertsona horiei errekurtso bat eskaintzea da, krisialdi horri banakako zein taldeko terapien bidez aurre egiteko. "Gorputzaren doluak aditua, lagundua eta sendatua izan behar du". Talde dinamika horretan jorratuko diren gaiak honakoak dira: doluaren integrazioa gizakiaren dimentsio bezala, doluaren etapak, *nire bizitza aladatu egin da/ni aldatu egin naiz*, heriotzari beldurra/bizitzari beldurra, erru sentimendua eta bakardadea. Informazio gehiago 943 15 71 92 telefonoan jaso daiteke.

Xabi Otero

gurien...

argazkilaria

"Azpeitira hitzaldia ematera etortzen naizen lehen aldia da"

Ilerea Aranburu / Urriaren 5ean Euskal Herriko Argazki Elkarte IV. Topaketak ospatu ziren Azpeitian. Ekitaldi desberdinez gozatzeko aukera izan zuten argazkizaleek, tartean Xabi Otero argazkilaria hitzaldiaz.

• Zertaz izan da hitzaldia?

Denetaz hitz egin da. Lehenik, nire esperientziak mintzatu naiz, egin ditudan zenbait lan oinarri hartuta. Gero, bildutakoon zalantzak eta iritziak elkar trukatzeko saiatu gara.

• Zenbat denbora daramazu argazkilaritza munduan?

Betidanik gustatu zait mundu hau, txiki-txikitat. Gero hor-tik bideratu ditut neure gustuak eta gaur egun argazkilaritza dut ogibide.

• Nolako argazkiak gustatzen zaizkizu?

Abenturazko argazkiak asko landu ditut, baina era guztietakoak ditut gustuko: paisaienak, pertsonen ateratakoak,...

• Eskuarrean zein proiektu dituzu?

Dagoeneko liburu batzuk aterata ditut eta orain beste batekin gabiltza; Quebec-i buruzkoa da. Horretarako, aurrez hara joan gara nolako argazkiak izango diren aurreikusteko.

• Azpeitira zatozen lehen aldia al da?

Lehen ere etorria naiz lanaren kontuak zirela tarteko, baina Azpeitira hitzaldi bat ematera etortzen naizen lehen aldia da. •



Dagoeneko
baditut liburu
batzuk aterata,
orain Quebec-i
buruzko batekin
ari naiz"

Arruti eta Bergara omenduei, pieza

Ilerea Uranga / Azpeitiko Udal Musika Bandak azaroaren 24an, Santa Zezilia egunaren ospakizunean musika bandako bi kide omenduko ditu: Joxe Arruti eta Javier Bergara. Biek aurten 50. urteurrena beteko dute bandan; Arrutik tronpeta jotzen du eta Bergarak bonbardinoa. Jose Luis Frantzesena musika bandako zuzendariak eta konposatzaileak pieza bana idatzi die: Arrutiri *pasodoble* bat idatzi dio eta Bergarari *habanera*. "Joxeri *pasodoble* egin diot, zezenetan-eta tronpeta asko nabarmentzen delako. Eta Javierri *habanera*, pertsonaia gozo bat delako; hitzak ere jarri dizkiot. Bandak omendu dituen denek egin izan diet musika bat, banda osoaren izenean. Opari polita da".



Joxe Arruti.

Orduan bandak zutoihal berria estreinatuko du, Javier Iraetak diseinatu: "Musikaren sinbolo den lira du. Klarineta ere bai. *Agur Jaunak* kantaren pentagrama, Azpeitiko eskudoa eta atzean kioskoa dago". •




Javier Bergara.

Zazpi gazte epaitu egingo dituzte

Uztarria / Zazpi azpeitiar gazte epaituak izango dira. Urriaren 25ean Julen Arrieta epaitu zuten, Erztaintzarekin izan liskar batengatik, eta bederatzi hilabeteko kartzela zigorra eskatu zuen fiskalak. Azaroaren 15ean Ekain Urrestilla, Josu Urbietak eta Xabier Etxeberria *Txapi* epaituko dituzte, 1999an PPren ekitaldi bateko liskar batengatik, "presoen eskubideak defenditzean"; bederatzi urteko kartzela eskaera dute. Abenduaren 11n epaituak, Haritz Arzallus, Asier Aranbarri, Iñaki Azkue, Julen Arrieta eta Txapi. •

Zubi eta errotonda berria

Udalak, urriaren 16ko udalbatza-rean, Landetatik Urrestillarako errepidetik Antzibarrena industria gunera zubi bat eta errotonda bat eraikitzea onartu zuen. Antzibarrenako industrigunera autoentzako sarrera-irteera jarriko da.




Errotonda eraikiko den gunea.

Kultur taldeentzat epea zabaldu da diru laguntza eskaera egiteko

Udalan kultur taldeek 2003rako diru laguntza eskaera egiteko epea zabaldu da. Azaroaren 1etik 30a arte izango da zabalik. Diru laguntza eskaera egiteko Kultura Sailean aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa da: taldearen datuak, taldeko arduradunaren datuak, taldekideen izenak, taldearen helburuak, 2003ko plangintza, aurrekontua, diru laguntzaren azalpena, eta 2002ko diru laguntzaren egiaztapena.

pertsonajie



Arkaitz Iriarte

Arkaitz Iriarte, 21 urteko aizkolariak III. Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketa eskuratu zuen, urriaren 12an, Basaurin. Garaipen horrek hurrengo denboraldian II. Mailan aritzeko aukera eman dio, eta horixe izango du hurrengo erronka; mailari eustea, alegia. Sorpresan harrapatu du

garaipenak mutila, baina datorren urterako aizkora serio hartu eta entrenamendu gogorragoak egitekotan da, ia astirik ere ez baitu izan entrenamenduetarako eta. Uztarrria Arkaitzekin izan da garaipena lortu eta gero, eta haren inpresio eta aurrera begirako asmoen berri webguneko helbide honetan duzue: www.uztarria.com/albistiek/albistiek/1035452112/index.html •

zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



ERANTZUTEKO EPEA: Azaroak 15 (ostirala)

HELBIDEA: Uztarrria, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Arrieta Elektrogailuak dendako irrati kasetea.

AURREKO ARGAZKIYE...



...ETA SOLUZIYUE



IRABAZLIE: Maider Agirre Odriozola



Maider Agirre Odriozola izan da 33. garailea. Astigarraga oinetako dendako erosketa txartela irabazi du. Argazkian, Maider Agirre —ezkerrean— eta Astigarraga oinetako dendako jabea ageri dira.

“Zaletasuna bezala
hasi zena bizibidea
bihurtu da eskalada
azken bi-hiru urteotan”

Leire Agirre
(eskalatzailea)

“Azpeitiko Euskal
Antzerki Topaketek
hasierako helburua galdu
dutela uste dut”

Imanol Elias
(antzerkiegilea)



Luis Mari Gurrutxaga.

“Nuarben 786 txapela
jarri genituenean ohartu
ginen zer lortu dugun
taldearen 25 urteotan”

Luis Mari Gurrutxaga
(Nuarbe sokatira taldekoa)

Joseba Albizu txirrindulariak, talderik aurkitu ezean, bizikleta uzteko asmoa du

Nerea Aranburu / Joseba Albizu txirrindulari azpeitiarrak une zailak bizi ditu azkenaldian. Aurtengo Euskaldun-DEIA Torneoaren irabazleak, oraindik ez du garbi datorren denboraldian profesioaletara igaroko den ala ez. Ekainean, Girinoko lasterketan bigarren postua lortu eta gero, Italiako hainbat taldek Joseba Albizurekiko interesa azaldu zuten; besteak beste, DeNardi, Saeco eta Alexia taldeek. Azken berrien arabera, DeNardi Italiako taldearekin fitxaketa nahiko aurrerata zuten, baina azkenean, arazo ekonomikoak tarteko, taldeak ez du maila profesioalean parte hartzerik izango. Une hauetan oraindik ez du beste talderen baten eskaririk jaso. Baina Giuseppe Martine-

lli, Saeco taldeko zuzendariak hitz eman dio talderen bat aurkituko diola, eta orain itxaron besterik ez du.

Joseba Albizu jubeniletan zegoela hasi zen sariak irabazten. 18 urterekin afizionatueta-rako pausoa eman zuen, Beasaingo Iberdrola taldearen eskutik alegia. Afizionatueta-ko lehen urteak ez ziren errazak izan Albizurentzat, istripu bat tarteko, denbora luzez geldirik egon beharra izan baitzuen. Gero, 1999an, Cafés Baqué taldera igaro zen eta aurtengoa izan da bere seigarren denboraldia afizionatuen mailan. Bukatu berri den denboraldian eskuratu ditu probarik nagusiak, horien artean Audioko proba, Alzoko Igoera, Ogarrio eta Tenerifeko Itzulia.



datuak

Albizuren berri

- **JOSEBA ALBIZU.** 1978an jaio zen Azpeitian; 24 urte ditu.
- **HASIERAK.** Lagun Onak Txirrindulari Elkartean ibili zen jubeniletako bigarren urtea arte.
- **AFIZIONATUETAN.** 18 urterekin afizionatueta-rako pausoa eman zuen Beasaingo Iberdrola taldearekin. Sei urte daramatza afizionatuen mailan.
- **CAFÉS BAQUÉ.** 1999an Cafés Baqué taldera pasatu zen.
- **EUSKALDUN-DEIA TORNEOA.** 2002ko torneoaren irabazlea izan da 391 punturekin. Torneoak, elitekoen eta 23 urtez azpiko- en lasterketako erregularitatea saritzen du.
- **2002 DENBORALDIA.** Guztira hamar proba irabazi ditu, eta 32 aldiz lehen lau postuetan sailkatzea lortu du.
- **GIRINO LASTERKETA.** Ekainaren 15etik 23ra jokatu zen lasterketan bigarren bukatu zuen. ●

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURAK
- FINKEN ADMINISTRAIOA

Enparan kalea, 30

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

ZALDIKO

SALBE 15 943-151275
ESTETIKA ETA OPARIK

Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...
Paper pintatua aukera handia

URBISTONDO MARGOAK

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa
zuri esker




 Foru Ibilbidea, 3 ♦ 653-71.49.72 (Esther) ♦ 658-73.19.07 (Gonzalo)



DESBERDINDU ZAITEZU!!!



Babesa
 gazte moda

Udazkena - Negua

Uribitarte 9 ♦ Tel 943 151369
 Kordinak: 43.000000, -2.000000



Euskal Herria 31, Tel. 943 151639

Erdi kalea, 15 Tel. 943 814623


www.uztarria.com

zuk ere eman ezazu albistea, agenda, botoa, iritzia...;
hartu parte Azpeitiko atayen, erraza da.



Telefonicako etxea, Perez Arregi Plazan. Azaroaren 18an hutsik geratuko da. / NEREA URANGA

ERAIKIN HISTORIKOA SALGAI



Erdian, Bikuña Etxea. 1925ean bota zuten, goiko etxea eraikiz. / HISTORIAS DE AZPEITIA

Azaroaren 18tik hutsik geratuko da eta Telefonicak saltzeko asmoa du; udalak erosteko interesa dauka

Enekoitz Eñola

Eraikin historiko bat salgai jarriko dute laster: Telefonicak Perez Arregi Plazan erdian daukan eraikina. Izan ere, Telefonicak behin betiko utziko du eraikin hori, langileak aldameneko etxera, Eliz kale aldean dagoenera pasatuko direlako azaroaren 18an. Iazko Santiyo bezperan sute bat izan zen Eliz kale aldeko Telefonicako etxean, eta harrezkero beste eraikinean egon dira Telefonicako langileak. Gutxi falta da eraikin historiko hori hutsik geratzeko.

1965etik du zentrala Telefonicak Azpeitian. Eta, hain zuzen, hasieran etxe horretantxe hasi ziren lanean. Imanol Eliasen *Azpeitia historian zehar* liburuan jartzen duenez, herrian telefono zentral bat jartzeko lehen pausoak 1908ko martxoaren 30ean

eman ziren, Azpeitiko Udalak bultzatuta, eta 1909an zentrala jartzeko lokal bat eskaini zion Diputazioari. 1955ean aldaketa handia izan zen, ekainaren 28an Joaquín Irizar arkitektoak Perez Arregi Plazan zentral berria egiteko proiektua aurkeztu zuelako udalean eta honek 1963ko urriaren 17an etxea altxatzeko baimena eman zuen. 1965eko uztailaren 19an zabaldu zen zentrala, eta, besteak beste, orduan bederatzi azpeitiar sartu ziren lanera. Pixka batera eraikin handira pasatu zen Telefonica, baina Perez Arregi Plaza erdiko etxe horretan lokutorioa izan zen, telefono aparagailurik ez zutenek handik egin zitzaten deiak.

Urteetan Gipuzkoako zentralik garrantzitsuenetakoa izan zen Azpeitiko Telefonica, ehun langiletik gora edukitzera iritsi zelako. Gaur egun hamalau langile baino ez daude, eta horietatik hamahiru azpeitiarrak dira.

BIKUÑA ETXEA. Salgai jarriko den etxe horrek edota toki horrek badu beste historiarik. Izan ere, eraikin horren aurretik beste etxe bat zegoen, Azpeitiaren herri-egiturarentzat oso garrantzitsua. Hain zuzen, Azpeitia egin zenean, ohiko moduz egin zuten: hiru kalek —alde zaharrekoek— bukaeratan bat egiten zutela eta bukaeratan plazak eraikiz. Enparanek ez zuen intererarik eta Erdi kalera joateko kantoit batetik pasatu beharra zegoen, eta kantoia Bikuñaneko etxe azpitik igarotzen zen. Ignacio Artetxeren *Azpeitiko istorioak* liburuan ageri denez, etxea garai batean Nicolas Saenz de Elolaren familiarena izan zen. Nicolas Saenz de Elola, Perun koskitatzaila lanetan ibilitakoa zen. 1955ean hil zen, eta Azpeitiko alkate izan zen tarte batez.

Etxe hori 1925ean bota egin zuten, Urolako Trenaren lanak zirela arrazoi, eta bere ordez eraikin polit bat egin zen —gaur egungoa—. Hasiera batean, karlisten biltoki izan zen, eta 1965etik Telefonicaren esku dago. Orain salgai jarriko du. Azpeitiko Udalak erosteko asmoa azaldu du. ●

Josu Bereziartua

Mendigoizalea

Urriaren 1ean bete ziren hamar urte Josu Bereziartua Everesteko gailurrera igo zela. Aurretik bi aldiz izana zen Everesten, tontorrik lortu gabe. 1992an egun batzuk lehenago Cho Oyu egina zuen

“Niretzat Everest, proiektu baten hasiera izan zen”

Nerea Aranburu

Josu Bereziartuak gazte-gaztetatik ekin zion mendian ibiltzeari. Lehenik, hemen inguruko mendietan, eta gero, urte batzuk beranduago, gailur handiagoetarako pausoa emanez. Harrezkero, hainbat tontorretara iritsi da mendizale azpeitiarra. Urriaren 1ean bete ziren, hain zuzen ere, Josuk hamar urte Everesteko tontorra zapaldu zuenetik.

● **1990ean abiatu zinen lehen aldiz Everestera.**

Bai, urte horretan izan nuen lehen kontaktua munduko mendi altuenarekin; Everestekin, alegia. Euskal Federazioak Euskal Herriko mendi-

Josu Bereziartua, Everesteko tontorrean, orain hamar urte. / IZARRAIZTIK EVERESTERA



1992an, Everest igotzen. / IZARRAIZTIK EVERESTERA



Amaiarekin Cho Oyuko gailurrean, 1992an.



Everestetik bueltan Joxe Takolo zenarekin.

zaleekin Everesteko horma zail baterako ahalegina antolatu zuen eta hara joateko deitu zidaten. Oso horma zaila zen eta garai hartan, 1990ean, prestigio handiko bidea zen, baita gaur egun ere. Espedizio hartan lan asko egin genuen, baina orduan ez zen posible izan tontorra; 8.350 metro-raino iritsi ginen. Tontorra ez genuen lortu baina oso gustura etorri ginen espedizio hartatik.

● **Urte bat beranduago, beste saiakera bat egin zenuen.**

Bai, 1991n. Azpeitian espedizioa antolatu zen, herri giroan oinarritutako espedizioa. Niretzat Everest proiektu baten hasiera izan zen. Everest eginez gero, prestigio bat daukazu eta gero, laguntzak lortzeko garaian, errazagoa izaten da. Orduan ere ez genuen tontorra egitea lortu, baina oso gertu geratu ginen. Ezin izan genuen leku bat zeharkatu, baldintza txarrak zirela medio eta oxigenoa agortu zelako, baina jendeak hori ulertu behar du. Hau da, talde bezala gai ginela eta Azpeitiko jende batekin Everest 8.760 metrora iristea zer-baiten adierazgarri zela.

● **1992an, bi gailur lortu zenituen: Cho Oyu eta Everest. Nolatan bi gailur espedizio berean?**

1991ko Everesteko espedizioaren ondoren, Amaia Aranzabalek eta biok pixka bat nekatuta bukatu genuen horrelako espedizio handiekin, eta Everestek suposatu zigun lanarekin erreta amaitu genuen. Ondoren, biok erabaki genuen hurrengo espedizioa Cho Oyura izango zela: nahikoa mendi erraza, eta pixkat biok bakarrik, modu arinean, konpromiso gutxirekin. Kasualitatez, hori antolatzen ari ginela, Felix eta Alberto Iñurrategi Everestera zihoazen urte horretan, baita nafar batzuk ere. Ez

“ Azkenean proiektua aztertu nuen, posible zela ikusi eta hala izan zen. Cho Oyuko gailurra egin eta zuzenean Everestera ”

“ Oso ondo pasatu nuen eta oroitzapen onak ditut. Egun hori, urriaren 1a, txanpain botila bat irekiz ospatu genuen ”

dakit nola atera zen, baina aukera ikusi nuen Cho Oyu azkar samar ibiliz gero, altuerara egokituta eta jada Everest hainbeste ezagututa, igoera azkar bat egiteko. Azkenean, proiektua aztertu nuen, posible zela ikusi eta horrela atera zen. Cho Oyuko gailurra egin eta zuzenean Everestera joan nintzen.

● **Nola gogoratzen duzu igoera?**

Irailaren 28an atera nintzen beheko kanpamendutik bigarren kanpamendurantz. Han egun bat-edo egin eta handik hurrengo kanpamendurako bidetara ekin genion, Hego Leporaino iritsiz. Urriaren 1ean goizeko ordubiak aldera atera ginen tontorrera bi mendizale frantziar, beste bat eta ni. Hauek, ordea, amore eman zuten eta ez zuten aurrera jarraitu. Eguraldi ona egiten zuen eta aurrera jo beharra zegoen. Igoera on bat egin ondoren, goizeko zortziak aldera lortu nuen munduko gailurrik altuena zapaltzea.

● **Zer-nolako balorazioa egingo zenuke espedizio hartaz?**

Pertsonalki oso ondo pasatu nuen eta, gainera, bi gailur lortu nituen bi asteren barruan. 1991ko balorazioa antzekoa egiten dut, bakarrik oraingoan gailurrera iristea lortu nuela. Nik espedizio bat osotasunean baloratzen dut, etxetik ateratzen naizen unetik itzulera arte. Orain arte, gehienetan behintzat, nire espedizio guztietan oso sentimendu aberatsak izan ditut.

● **Zer sentitzen du mendizale batek munduko mendirik altuenaren gailurrean?**

Galdera horri erantzutea oso zaila da niretzat. Ezin dut orokorrean hitz egin, pertsonalki baizik. Guztion gustukoa da tontorrera iristea. Gailurrean bertan, poz handia eta, aldi berean, lasaitasun handia sentitzen ditu mendizaleak. Noski, munduko gailurrik altuena izaki, izugarrizko ikusmira dago. Beste mendi guztiak ikusi ahal dira bertatik. Azken finean, nire ustez behintzat, postre on bat da gailurra lortzearena.

● **Hamar urte igaro dira igoera hartatik. Nola gogoratzen duzu egun hura?**

Lehen esan bezala, oso ondo pasatu nuen espedizio hartan, bi gailur lortu nituelako. Oroitzapen onak ditut. Egun hori txanpain botila bat irekiz ospatu genuen.

● **Aurrera begira, zer proiektu dituzu buruan?**

Oraingoan, segurua ez da baina, neguan Broad Peak-era joatekotan gara. Pakistanen inork ez du zortzimilako mendirik egin neguan, nahiz eta batzuk horretan ahalegindu. Guretzako, eta niretzat pertsonalki, tontorrera iristea oso polita da, baina niri negua beti gustatu izan zait. Udako beroa baino nahiago dut hotza. Himalayan, Albertorekin eta Felixekin probatu nuen eta oso esperientzi gogorra izan zen. Hala ere, saiatuko gara Broad Peak-eko tontorrera iristen. ●

kitzika  **joyeria**

Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea

Pastorkua Tabernaren ondoan

Jose Artetxe, 13 Tel. 943.15.76.13 AZPEITIA

Egin publizitatea

uztarria.n

943 15 03 58

BIZIORIK TXARRENAK



Jar zaitez Azpeitian, Erdiko kalearen barrenean, aste egunez, iluntzeko hamarretan: ez duzu animarik ikusiko kalean. Tabernetan ere ez dabil inor. Hori da, niretzat, Azpeitiaren irudirik tristeena. Erretiratu egin gara denok. Etxean gertzen gara telebista ikusten, indarrak gordetzen. Zertarako? Hurrengo egunean lanera joateko. Hau Azpeitian ez ezik Euskal Herri osoan gertatzen den fenomeno bat da. Larunbatetan bakarrik ateratzen gara. Beste sei egunetan, etxeak jan gaitu, telebistak jan gaitu. Batez beste hiru ordu ikusten omen dugu telebista euskaldunok.

Hau gauza berri samarra da gure artean. Iraultza asko egin behar genituen: iraultza soziala, iraultza politikoa, sexuala, erlijiosoa... eta azkenean ez dugu ezer lortu. Geuri sartu dizkigute aldaketa ederrak, nahi ez genituenak.

Munduan diren bi modelo sozialik okerreneren ereduak geureganatu ditugu: batetik, Europako *muermoa*, eta bestetik, Japoniako lan-gosea. Lehen tabernetan eta elkarteetan gaur baino askoz gehiago ibiltzen zen jendea. Iparraldera joaten zirenak, edo Europako hainbat herritara bidaiatzen zutenak kontatzen zuten hura aspergarria zela, arratsaldeko zortzietarako ez zegoela inor kalean eta jendea ez zela etxetik ateratzen, jendeak etxean antolatzen zituela afariak, etxean mozkortzen zela. "Hori ez da hona iritsiko", esaten genuen. Ba iritsi da. Aste egunetan tabernetan egon ohi den bakardadea eta tristura ikusi besterik ez dago.

Honekin batera, jendeak gero eta ordu gehiago sartzten ditu lanean, eta sartu nahi ditu gainera, pisua ordaintzeko daukalako, autoa ere bai, Kubara joan nahi lukeelako udan eta eskiatzera neguan. Lehen oporretara gutxi joaten zen jendea; eskiatzera bizpahiru ero besterik ez. Orain hori dena eskura jarri zaigu, baina zer prezio ordaindu dugu? Lan-orduen morroi bihurtu gara. Jendeak zortzi ordu baino 11 sartzea nahia go du, ordu estrak ondo kobratzen direlako. Lekutan dago justizia soziala, ordu estren aurka zegoen hura, lekutan dago astean 35

orduren erreibindikazioa! Lehen soldata batekin gobernatzen zen sendiarte osoa, gaur bi soldata behar omen dira, bakarra daukatena justu omen dabilta hilaren bukaerara iristeko. Hau aurrerape-na al da?


Europarrak bezain aspergarri bihurtu gara, eta japoniarrak bezain langile sutsu. Ordu estra jaleak, telebista irenseak, eta lagunekin egoteko denborarik ez duten piztiak bihurtu gara.

Kaleko giroa pixka bat aztertu besterik ez dago. Begira tabernetako musikari: denek musika bera, igoa-igoala jartzen dute larunbatero, uda guztia lau kantu entzuten pasatu dut. Berdintasun honek hilko ditu gure ezberdintasunak, pertsona bakoitzaren graziak.

Nire lagun batek esaten du lehen Azpeitian denak zirela xelebreak; alegia,

pertsona bakoitzak bere xelebrekeriak zituela, bere izaera zehatza, bere maniak, hizketarako bere berezitasunak, eta gaur egun denok igoyalak garela, denok gauza beretsuak esaten ditugula, grazia handirik gabe denok ere. Jendearekin hitz egitea gero eta aspergarriagoa da. Ez dizute gehienetan ezer aportatzen. Txinparta galdu dugu, diferenteak izateko ausardia galdu dugu, helburua besteengandik ez nabarmentzea da, denok masa bat bihurtzea, masa kaxkal, mediokre eta protestarik egiten ez duena, *zombiak* bezala supermerkatu erraldoietan erosketak egiten ibiliko direnak, eta ilunabarrean telebistaren aurrean eseriko direnak. Gure arteko elkarriketak ere, gero eta gehiago, telebistaren ingurukoak ari dira bilakatzen.

Europatik zerbait hartzen hasi eta okerreana hartu dugu; Japoniatik zerbait ekarri nahi eta okerreana ekarri dugu. Eta oraindik ere euskaldunak garela esaten dugu? Ez daukagu barkamenik.



HILEKO GALDERA. Alkatea bere postua uztera omen doa; nolako balantzea emango ote du haren agintaldiak?

Uztarria

Gero eta babes handiagoa: jada 600 bazkide

Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerre (Azpeitia).
Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Web orria:

www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.800 ale
Legegordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna



UztARRIA EIBARREN. Uztarria Kultur Koordinadorak Arrate Kultur Elkartearen 50. urteurreneko ekitaldietako hitzaldi batean hartu zuen parte, Eibarren, urriaren 24an. Iban Arregi izan zen Uztarriako ordezkaria —argazkian, ezkerrean—. Beste kideak: Arrasate Euskaldun Dezagun, Elgoibarko Izarra Elkartea eta Elorrioko Arriola aretoa. Gonbidatuta zegoen, baina ez zen izan, Zenbat Gara Elkartea eta Kafe Antzokia. Uztarriak beste hitzaldi garrantzitsu batean hartuko du parte laster; izan ere, azaroaren 23an Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) antolatutako hitzaldian izango da, Eibarren, eta www.uztarria.com webguneari buruzko hitz egingo du.

3 urte		AZAROA											
Uztarria		A A A G O L I											
herri aldizkariak		1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12											
		Ip 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30											

albiste txikiyek



Mutiko kenyarra/ M. PEREZ

Uztarria.com Kenyan

Uztarria.com-en arrastotak Azpeitiko eta Euskal Herriko mugak gainditzen ditu. Honatx, Mikel Perez azpeitiarrak bidalitako irudi bat, Mutiko kenyar bat uztarria.com-en elastikoa jantzita.

'Imanol Elias' liburua salgai

Uztarriako bazkideek jasotzeko dute Imanol Eliasi buruzko liburua euren etxean. Baina herriko zenbait liburutegietan eta tabernetan zazpi euroko salneurrian salgai dago liburua. Honako lekuetan eros daitezke *Imanol Elias* liburuxka biografikoa: Pastorkua, Zuhatz eta Lagun Onak Mendi Bazkuna tabernetan, Eklipse kultur dendan, Martinez dendan eta Belaetxe dendan.

601 bazkide gara jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21,04 euro (3.500 pezeta) / Bestela harpidedun izan zaitezke, doan (kontu korrontearena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

CODE POSTALA:

TELEFONOA(K):

POSTA ELEKTRONIKOA:

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak):

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2.a ezkerre • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

MERKATAL GUNEAk AZPEITIAN

JARDUERAREN ARABERA - NAGUSIAK

Kafetegiak, tabernak, garagardotegiak	61
Emakumezkoen ileapaindegiak	28
Jatetxeak	26
Altzari fabrikak	24
Harategiak	24
Garraioa	22
Arotzak	20
Altzariak eta gehigarriak	19
Okindegiak, gozotegiak	18
Eraikuntza	18
Aseguruak	16
Mekanika eta herramintak	14
Berundatzaile eta iturginak	13
Igeltseroak	13
Margoak	13
Elikagaiak	12
Arrandegiak	12
Abokatuak	11
Enpresa zentroak	11
Ileapaindegi mixtoak	10
Elektrikariak	10
Irakaskuntza pribatua	9
Karrozeriak	9
Industriako makinaria	8
Gizonezkoentzako ileapaindegiak	8
Etxetresna elektrikoak	8
Galderagileak	7
Emakumezkoentzako jantziak	7
Aurrezki kutxak	7
Motoak eta bizikletak	7
Botikak	7
Animalientzako elikagaiak	7
Hizkuntzak	7
Erlojudendak	7
Estetika zentruak	6
Zerrategiak	6
Tindategiak	6
Kinkiladenda	5
Auto eskolak	5
Estankok	5
Autoen elektrizitatea	5
Optikoak	5
Prokuradoreak	5
Haurrentzako jantziak	5
Liburu dendak	4
Bankuak	4
Kirol dendak	4
Dekorazioa	4
Dentistak	4
Bitxitegiak	4

* Iturria: Telefonica



NON EROSI, HERR

Mila merkatal gunetik gora dago Azpeitian; horrek merkataritza erem

Azpeitian merkataritza, batez ere azken urteotan, indar handia hartzen ari da. Gero eta denda gehiago irekitzen ari dira, eta herriko merkatal gunea alde zaharretik beste auzoetara zabaltzen ari da, merkatal gunea zabala eratuz. Jakina, tartean lan handia dago, herritarrak erosketak egiteko herrian geldiaraztera bultzatuz, aukera eskainiz, dendak berrituz... Nola ez, horrek komertzio eta salerosketa guneei ahalegin bat eskatu die.

Azpeitian salerosketako mila gunetik gora dago; Urola Kostaldean, Zarautzen atzetik dago salgune kopuruari dagokionez. Kopuru horrek aukera zabalagoa izatea eskaintzen dio erosleari eta, era berean, herritarrari inguruko herrietara edo hiri-burura mugitu beharrean herrian bertan aukeratzeko modua.

Azkeneko hilabeteotan, gainera, denda berriak ireki dira, edota urteak dituztenak berritu egin dira. Horrek denak, herrian merkataritza bizirik dagoela adierazten du, eta, batik bat, Azpeitiak ematen duela horrenbeste denda irekita mantentzeko aukera. Hain zuzen, azkeneko urteetan itxi diren dendak bakar batzuk dira.

Herrian denda berria edota enpresa txikiren bat abian jarri nahi duten askok Iraurgi Lantzeneko merkataritza eta enpresaren sailera jotzen dute. "Normalean, denda bat irekitzeko asmotan gugana datozenak garbi izaten dute nolako denda nahi duten", dio bertako teknikari Alazne Larrañaga dak. "Dena den, denda bat irekitzeko interesa azaltzen dutenen kopurua eta aurrera ateratzen diren proiektuen artean tarte handia dago. Iaz esaterako, Azkoitian eta Azpeitian negozio bat abian jartzeko interesarekin 80 lagun inguru hurbildu ziren, baina Azpeitian proiektua gauzatu zutenak zortzi izan ziren. Aurten, berriz, gora egin du martxan jarri diren proiektuen kopuruak, azarorako bederatzi proiektu bideratu direlako Azpeitian". Iraurgi Lantzenen bidez aurten bideratu diren egitasmoen artean autoentzako karrozeria bat, arkitektu eta nekazal injineruen bulego bat, etxeko tresnen denda eta ileapaindegia daude, besteak beste.

Komertzio berria irekitzera animatzen direnak orokorrean gazteak izaten dira. "Gazteak dira gehien, baina unibertsitate tituludunak gutxi dira", azaltzen du Alaznek. Eta Iraurgi Lantzenek proiektua gauzatzeko lagundu, bertara gerturatzen den horren asmoaren bideragarritasuna aztertu eta kreditua lortzeko erraztasunak eskaintzen ditu. "Gazteek normalean kreditu bat ateratzeko nahiko zailtasun izan

“Nik beti esan ohi dut denda baten bideragarritasuna ez dagoela diru laguntzen baitan”

Alazne Larrañaga
(Iraurgi Lantzeneko teknikaria)

“Merkataritza indartzeko, nire ustez, dendak berak aktualizatu egin behar du, berritu”

Jabier Iraeta
(Udaleko Merkataritza eta Turismo sailburua)

ohi dituzte. Guk Kutxarekin akordio bat dugu; horrenbestez, betiere errazagoa suertatzen da". Bestetik, negozio berri bat irekitzeko orduan dauden diru laguntzei buruz ere informatzen ditu Alazne Larrañaga teknikariak dendari berriak. "Dena den, nik beti esan ohi diet denda baten bideragarritasuna ez dagoela diru laguntzen baitan, eta behin proiektua bideragarria dela ikusi ondoren direla diru laguntzak kontuan hartu beharrekoak".

Alaznaren iritziz, Azpeitian merkataritzak "indar handia" du, eta arlo horretan udala eta merkatarien elkartek ahalegin "handia" egiten ari dira. "Orain dela gutxi izan naizen ikastaro batean zera azpimarratu zen: herri bat bizirik mantentzeko oso garrantzitsua dela komertzioa, turismoa eta aisialdiaren arteko oreka lortzea".

UDALAREN HELBURUA. Azpeitiko Udalean 1999an sortu zen Merkataritza eta Turismo Saila. Orduan hiru helburu jarri zituen sailak merkataritza alorrean: lehenik, herriko merkatariekin hartu-emanak izaten hastea hauen arazoak ezagutzeko; bigarrenik, betiko merkataritza antolatzeke eta garatzeko ekimenak bideratzea; eta hirugarrenik, merkatariekin batera etorkizuneko plangintza egitea. Javier Iraeta batzordeburuak (EAJ) Uztarriari esan dionez, Alde Zaharreko Merkatarien Elkartearekin eta UEMErekin hartu-emanetan daude.

Bestetik, udalak herritarrak herrian erostera animatuz kanpaina abian jarri ohi du urtero Gabonetan. "Kanpaina horren helburua, jendeak Gabonetako erosketak herrian bertan egin ditzan kontzientziatzea da. Jendea askotan, produktu hobeak aurkituko dituelakoan, hiri-burura joan ohi da, eta jendeak diru hori herrian bertan gastatzea da kanpaina horrekin lortu nahi duguna".

Javier Iraetaren ustez, "herrian merkata-

A BIZI

zabaltzea eragin du



**MERKATAL GUNE KOPURUA
UROLA-KOSTAN**

HERRIA	KOPURUA
Zarautz	1.546
Azpeitia	1.012
Azkoitia	575
Zumaia	489
Orio	243
Getaria	208
Zestoa	197
Aia	121
Aizarnazabal	30
Errezil	11
Beizama	2

* Iturria: Telefonica

» ritza indartsua" izatea garrantzitsua da. Eta udala pausoz pauso merkataritza laguntzen ari dela uste du. Udalaren aha-
leginaz gainera, merkatariek ere ahalegina egin beharko luketela dio Iraetak. "Merka-
taritza indartzeko, nire ustez, dendak berak aktualizatu egin behar du; berritu eta
prestatu egin behar du, jendea erakarrara-
zi behar du. Udalarentzat ere zoragarria izango litzateke, Loiolak jendea erakartzen duen bezalaxe Azpeitiko merkataritzak jendea erakarriko balu. Badakit horrek beste zenbait kontu eskatzen dituela, aparkalekuak gertu izatea, ibiltzeko erraztasunak eskaintzea, alde zaharra apaindu-ta egotea... Baina pixkanaka-pixkanaka egiten ari gara. Agian dendarientzat makal goaz, baina ari dira gauzak egiten; niri iru-ditzen zait saltokiak orokorrean gustura daudela".

Herria handitzen eta etxebizitza berriak eraikitzen ari diren heinean, merkatal gune berriak sortzen ari dira. Hala nola, Olazko Amaren Plaza eta Hartzubia ingurua dira indartzen ari diren guneak. Horren harira, "jende asko gune horietara joan da bizitze-ra eta lokal berriak sortu dira", dio Iraeta zinegotziak. "Autobusen geltokiak, anbulat-gia eta abar hor daude. Jendea asko mugitzen da inguru horretan; beraz, logi-koa da dendak inguru horretara joatea".

Kontuak kontu, salerosketa gune berri horiek, eta betikoek, herria biziagoa izaten laguntzen jarraitzen dute.

Garai berriei aurre hartuz

- Etxeberria eta Agirre dendek urteak daramatzate herrian



Garai bateko Gibitenekoa zena, Erdi kalean jabeak atarian direla. / ETXEBERRIA

Urteetan Azpeitian diren dendak badi-ra, bertan sortu zirenak eta urteak aurrera, garaian garaia moldatuz aurrera egin dutenak. Azpeitian urte gehien daramatzana Etxeberria da, *Gibitenekoa* be-zala ezagutu izan dena urteetan. Giber-tek 1850ean ireki zuen denda Erdi kale-an. Dendako nagusiek kontatzen dute-

nez, "denda ireki zutenak frantziarrak zi-ren, eta generoa kanpotik ekarri ohi zu-ten. Garai hartan optika, ferreteria, droge-ria... denetik aurki zitekeen bertan". Baina ordutik aldaketa handiak izan ditu. Gaur egun Etxeberria industria hornidurak eta etxerako dekorazio gaiak eta etxetresnen saltokia, Garmendi gainean dago, eta



oinetakoak

Urbitate, 8

• Tel. 943 15 18 11

• Mob. 605 74 64 16



ORKATZ KULTUR ELKARTEA


Erdi Kalea, 24



TABERNA

Telfnoa.: 943 151086

Enparantza Nagusia



Idoia Etxezarreta

dendaria

“Hilabete da denda ireki nuenetik, eta alde onak eta txarrak ikusteko nago”

Idoia Etxezarreta gaztea da herrian denda ireki duen azkenetakoa. Irailean zabaldu zuen, alde zaharrean; Mugi Kirolak kirol denda, hain zuzen ere.

● Nolatan animatu zara denda berri bat irekitzera Azpeitian?

Nik neuk kirol denda bat irekitzeko asmoa banuen aurretik. Gero neuk ere merkataritza ikasi nuen Donostian, eta praktikak Donostiako kirol denda batean egin nituen.

● Zergatik aukeratu duzu Azpeitian alde zaharra denda irekitzeko?

Ni neu azpeitiarra naizelako aukeratu dut. Gainera, lokala ere geurea denez, aukera hori aprobetxatu dut. Bestetik, alde zaharra herriaren erdigunea da. Baina denda ireki dudala hilabete

besterik ez da, eta oraindik alde onak eta txarrak ikusteko nago, oraindik ez baitakit denda nola joango zaidan ere.

● Azpeitia merkataritza gune garrantzitsua dela uste al duzu?

Txarrena dela ez nuke esango. Azkoitia edo Zesto baina hobeto ikusten dut. Bi herri horietatik jende asko etortzen da erosketak egitera Azpeitira.

● Jendeak erosketak egitera Donostira joateko joera duela ere esan ohi da.

Orain arte atzeman dudana zera izan da: astegunetako arratsaldeak hobeak izaten direla larunbat arratsaldeak baino. Agian, jendea kanpora joaten delako da.

● Denda bat irekitzea erraza al da?

Prozesu luzea da; proiektua egin, baimenak lortu... Luzea da beraz, eta oraindik ez dut bukatu. ●



“Astegunetako arratsaldeak larunbat arratsaldeak baino hobeak dira. Agian, jendea kanpora joaten delako da”

Gotain lurrindegia dago lehen denda zeneko lekuan. “Azpeitia ordutik asko industrializatu da; ondorioz, industria horniduren biltegia sortu genuen Garmendi gainean, 1989an, industria gunetik gertu eta sarrera-irteera errazagoa izateko. Etxeberriak hainbeste urtean irautea lortu badu, herriak aurrera egin duen heinean, gu ere aldamenen aurrera egiten joan garelako da. Herriaren aldaketei aurre egin behar zaie, hori baita modu bakarra aurrera jarraitzeko”.

IA DENETIK. Agirre oparidenda Erdi kalean dago eta 1930eko hamarkadaren hasieran sortu zen. Hirugarren belaunaldia da gaur egun dendako jabea dena. Dendaren aurreneko aldian altzari denda izan zen. “Garai hartan altzari denda zen eta ehorztetxe zerbitzua ere eskaintzen zen, gure aitona zenak egiten baitzituen hildakoen kaxak, eskuz. Arotz tailer txiki bat zeukan Enparan kalean, gaur egun, Ederti dekorazio denda dagoen tokian, hain zuzen”, dio dendako gaurko jabeak, Iñigo Agirrek. “Dendan, urteen poderioz, etxeko apaingarriak eta abar sartzen joan ziren. Garai hartan merkataritza ez zegoen gaur egun bezala definitua eta ia denetik saltzen zen dendetan. Gabonetako apaingarriak saltzen, berriz, aitzindariak izan ginen”.

“Dendak aurrera egiteko modu bakarra herriko aldaketei aurre hartzea da”

Etxeberria

“Sorreran altzari denda zen; ehorztetxe zerbitzua ere eskaintzen zuten”

Iñigo Agirre



Otamendi
Bizi Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA



AIZPURU
AUTOAK

PEUGEOT

datue

8.016

bisitari izan ziren uztailean eta abuztuan Burnibidearen Euskal Museoan. Iazko udan baino %93 bisitari gehiago. 2.239 bisitarik Lurrinezko Trenean bidaia egin zuten.

dato historikue

390

urte dira (1612) udalak herriko maisu zen Martin Yañez Arrietari neurriak hartu zizkiola egin-dako akatsengatik.

esaldiye

“Euskaraz biziko litzatekeen unibertsitate-egitura, eskubide eta nahi bideragarria da”

J. Inazio Basterretxea
(EHUko irakaslea)

esaerie

“Esana da erraz eta egina garratz”

liburutik ttak

“Egunkaria Sortzen-ek egin kanpaina garaian hizlari guztiei eman zitzaizen gidan hau xe aitortzen zen: ‘Euskaldun guztion egunkaria egin beharra: ez Jaurilaritzarena, ez Nafarroako Gobernuarena, ez partidu batena, ez enpresa batena. Guztiona. Horretarako ezinbestekoa da: guztiok parte hartzea egunkarian egiten. Ezagunak dira laguntza ofizialez beteriko eta porrot egindako esperientziak’”.

‘Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri proiektua da’. Jexumari Zalakain. Txalaparta argitaletxea. 1993. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



GUZTIENTZAT, AGINDU BERDINA

Herri guztiak dardarka jartzen zituen izurritea gertu zen 1598an. Goardiak egiten ziren herri sarreretan gauzez eta egunez: Plaza Txikiko sarrera nagusian, barrenportal edo egun Perez Arregi deituriko enparantzan, Enparan zubitik izen bereko kalerakoan eta parrokiko dorrearen azpiko pasabidean —hone-tan gainera ate bat jartzen zen—, gaitza zen herrietatik hurbiltzen zirenak zaindu eta sarre-ra debekatzeko.

Ikusita herriaren inguruko errebaletan bizi zirenak arriskuan izan zitezkeela beste zenbait tokitan ere itxurak jarri ziren, eta horien artean aipatzen da Harzubiko zubikoa. Baserri-tarrei ere agindu zitzaion inor ez hartzeko eta hauen arroparik ez erosteko. Baina Loiola au-zoko Egimendiko San Pedro ermitan kutsatuta zen emakume bat egon zen edota beste per-

tsona bakarren batzuk inguruko zenbait er-mitetan izan ziren albisteak iritsi ziren.

Herritar denak mobilizatzen ziren honelako kasuetan. Agintariek egiten zituzten lehen go-ardiak eta gero, herritarrekin zerrenda bete-tzen zen txandak osatzeko. Gai garrantzitsua zen dudarik gabe, izugarritzko kaltea sor zeza-keen herrian gaitzak, eta gezurrak ere gogor zigortzen ziren orduan. Esate baterako, Do-mingo Aizpitarte bergararra atxilotu zen urte horretan Azkoitian, bere herrian esan baitzuen Azkoitian eta Azpeitian gaitz kutsakorra erabat zabaldua zegoela; gezurra izanik.

Apirilean Donostiatik Gipuzkoako Korrejido-rea iritsi zen Azpeitira ohiko txanda betetzera, eta unean alkatea zen Altuna Arostegik bere arropa eta jazki guztiak uztarazi zizkion bidean kutsatutako herritik baitzetoarren. Korrejidore-

garai bateko Azpeitiye ...Begoña Erraztik kontatua

Uniformedun eskolak

Asko aldatu dira garai bateko eta oraingo eskolak. Lehen, eskola bakoitzak bere uniformea zuen, derrigorrezkoa zena


Nerea Aranburu

Gaur egun, herrian eskola desberdin asko aurki daitezke. Orain urte batzuk ere ba-zeuden eskola desberdinak. Begoña Erraztik kontatzen duenez, “eskola horietako bat Jesus Mariak ziren. Eskola horretan oso jende abe-ratsa ibiltzen zen; Espainiako aristokraziakoak etortzen ziren. Han hamazazpi urte arte ego-ten ziren ikasten”. Jesus Mariako eskolaz gain, “Jesuitinetakoak, Esklabatakoak eta gu, Mila-grosa ikastetxekoak geunden”.

Orain egunero joaten dira eskolara; astebu-rua jai izaten dute. Baina orain urte batzuetako kontuak ez ziren horrela izaten. “Orduan, toki guztietan ostegun arratsaldea jai izaten zen. Baina larunbatean eskolara joan beharra iza-ten genuen. Igandea heltzen zenean, berriz, ohitura zegoen meza nagusira joateko”. Meza osoa latinez ematen zuten eta ordu eta erdi irauten omen zuen. “Elizara atzeko atetik sartu

eta elizaren ezker aldean Milagrosakoak ego-ten ginen; eskubialdean, aldiz, Jesuitineta-koak”. Esklabatakoak Korputzetako prozesio-an-eta joaten omen ziren, bestela ez. Eta joa-ten baziren, Milagrosakoen ondoren egoten ziren, gutxi baitziren. “Elizatik atera eta egural-di ona egiten bazuen, ordubiak aldera binaka-binaka jarri, ogia eta txokolatea hartu eta Loiolara joaten ginen, bai gu eta baita Jesuiti-netakoak ere”, dio Begoñak. Loiolara iristen zirenean, hango zelaietan ere bakoitzak bere lekua izaten zuen. “Hara iristean, zelaia-zen ezker aldean gu, Milagrosakoak esertzen ginen, eta eskubiko aldean Jesuitinetakoak egoten ziren”.

ESKOLAKO UNIFORMEA. Nahiz eta gaur egun ia uniformerik ez den erabiltzen, orduan eskola guztiek zuten berea. “Nire garaian, es-kola guztietan zegoen uniformea. Gure ka-suan, Milagrosan, astegunetako uniforme bat



Barrenean, gaur egun Perez Arregi plaza dena. / AZPEITIA HISTORIAN ZEHAR

● **IZURRITEAK.** Izurritea Azpeititik gertu zen 1598an. Orduan, goardiak egiten ziren herriko sarrera guztietan gauez eta egunez

ak alkatea atxilotu nahi izan zuen, baina herriak alkatea defenditu zuen eta Gipuzkoa-ko mandatariak Tolosara alde egin zuen txanda bete gabe, herriak protesta gogorak egin zituen gero. Garbi dago, emandako agindua guztientzako bera zela...



Mariaren alabak parroki aurrean. / IMANOL ELIAS

“Jai izaten zen ostegun arratsaldea, baina larunbatetan eskolara joaten ginen”

Begoña Errazti



genuen. Gaineko txuria marra urdin ilunekin izaten zen. Gero, txapela ematen genuen, txapela beltza”. Jai egunak iristen zirenean, aldiz, aldatu egiten zen uniformea. “Aste Santuko prozesioetan, Korputzetarako eta jai egunetan meza nagusira joateko, jantzi beltza janzten genuen. Gaineko beltz bat lepoko zuriarekin eta gero, *belo* zuri bat ematen zen. Oinetako beltzak eta galtzerdiak ere beltzak, lodi-lodiak”, dio Begoña Erraztik.

Eskolako materialari buruz, Begoñaren esanetan, “gaurko gazteak baino zorte handiagoa izan genuen alde horretatik, horrenbeste liburu eta traste ez baikenuen eman beharrik izaten. Gure garaian liburu bakarra erabiltzen genuen, *Enciclopedia* izeneko liburua hain zuzen, eta han eskolan ematen genituen ikasgai guztiak zeuden: historia, geografia, gramatika eta aritmetika”.

xapo euskerie

Aitor Arruti

Arantzazu Azpillaga

(itzultzaileak)

‘GURE HIZKUNTZA MAITTIE’

Egun on! ¡No sabes lo que nos ha pasado! ¡Nuestro perro tiene una depresión de caballo!

- Pero, ¿ya se deprimen los perros? No lo había oído nunca.

- Nosotros tampoco, pero, chica, no comía, estaba como *tristón*, y le llevamos al veterinario, y ¡va el tío y nos dice que está deprimido! Pinto, eder hori, zer pasatzen zaik, eh? Ez al hago gustora? Motel, guk ez diagu, bada, horrela egoteko ezer egin.

- Uy, pues a ver si Kepa también está deprimido, porque últimamente come poco y no tiene ganas de hacer nada. Ya le voy a comentar a la *andereño*. Kepa! Noara joan zera? Egon geldirik! Ez al dakizu dentistiengana guezela eta ez detala erropak zikintzerik nahi!

- ¿Al dentista? ¿Qué le pasa?

- Nada, la revisión anual. Kepa! Horra ez igotzeko! Nola esan behar dizut, eh?

- Pinto, utzi Kepa pakien, zikindu egingo dezu eta!

- ¿Deprimido este perro? Pues no tiene pinta.

- Es que le dio unas vitaminas, y ahora está mucho mejor. Baietz, Pinto, orain jolaserako gogue-eta etorri zaizkik, ezta?

- Pero, ¿ya ves? ¿Has visto a dónde se ha subido? Kepa! Erori eta sekulekue hartuko dezula, eta etortzeko honera! Dentistiengana joan beharrien anbulatoriyoa joan beharko degu horrela segitzen badezu! Me voy, que este niño está imposible. Berriz, ere egongo gaitun, neska.

osasune Julian Bereziartua (medikua)



KAILUAK, AZALEKO ALDAKETAK

Oin eta eskuetan, gaur egun nahiko sarri azaltzen diren kailuak, sorburu mekanikoa duten azaleko aldaketak dira; gehienetan, behin eta berriz egindako marruskadurak sortarazten dituzte.

Kolore hori ilunekoak izaten dira kailuak, zimurtsuak eta gogorrak.

Kailuak handitzen edo infektatzen direnean, mina eman ohi dute, ehun patologikoa- ren azpian likido poltsa txiki bat osatzen delako. *Birberotutako kailua* deitzen diogu horri.

Egia esan, gure azalarekin gaizki portatzen garenean gorputzak izaten duen defentsa dira kailuak, bai pelotarien eskuetan edo baita egokiak ez diren oinetakoak daramatzan ibiltariaren oinetan ere. Horregatik, kailuentzat tratamendurik egokiena atsedena

hartzea izaten da: presioa eta marruskadurak deuseztu; eta kasu batzutan, bainu beroak hartu behar izaten dira edo *hiperkeatosisa*: azalaren gehiegizko lodiera, errotik kendu.

Kailuak, bere erdian, azpiko ehunetaraino sartzen den kono-itxurako muturra du batzuetan, *oilar-begia* deitzen diogu honi; kailu mota honek min handia eman ohi du eta ez da desagertzen nahiz eta bere sorburua kendu. Honelako kasuetan tratamendurik egokiena, anestesia lokala ipini eta kailua kontuz kentzea izan ohi da.

● GORPUTZEKO DEFENTSA.

Kailuak azalarekin gaizki portatzen garenean gorputzaren defentsa dira

bertsolaritza

HIRU MILA BERTSO-DOINU SAREAN

Xenpelar Dokumentazio Zentroak 1980. urtetik bildutako bertso-doinuak jarri ditu edonoren eskura interneteko www.bertsozale.com/doinutegia.htm helbidean. Doinutegia 2.775 bertso-doinuk osatuta dago, baina hemen- dik aurrera eguneraketak egingo dira bertan, horretarako *iradokizunak* atala jarri baitute. Xenpelar zentroak doan jarri du eta eskuratzeko modu errazean, gainera. Bilatzeko modua ere erraza dauka, bilaketa era askotara egiteko aukera ematen baitu: doinuaren jasotzailea nor den adierazita, izenburua... Bestetik, doinua entzuteko aukera ere ematen du doinu- tegiak.

Aurretik Juanito Dorronso- rok 2.192 doinu zituen bilduta lau liburutan. Eta, orain, bosgarren liburu bat atera behar- rean bere lana argitara era- mateko sarea aukeratu du. Sarean jarri den doinutegi honetan aurkitu dezakeguna Bertsozale Elkartek 1995. urtean argitaratu zuen Bertso Doinutegiaren eguneraketa da.

gertuko pasadizue

OARGIKOAK, GILTZA BILA

● **MIKEL LARRAÑAGA:** "Berdura plazako giltza inspektzioan ego- ten zen eta Tomas Azpeitiak izaten zuen haren ardura. Gu giltza bila joaten ginen bakoitzean, berak alde egiten zuen inspektziotik, eta guk giltza ezin bilatu. Ezin entsaiorik hasi giltzarik gabe. Berak, nonbait, ez zituen oso gustokoak dantzak eta euskal kutsuko kontuak. Entsaio bakoitzaren aurretik amorratuta ibiltzen ginen giltza ezin genuelako bilatu Tomasek ez zuelako maite gure jarduna".

'Azpeitiko Itsasi taldea 25 urte' liburutik hartua. Itsasi Dantza Taldeak argitaratua. 2002. urtea.



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 22 65
Fax.: 943 85 28 67
E-mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

Perdilegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70
Fax.: 943 81 66 20
E-mail: azpeitia@urola.hezitek.net



AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es


20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)



Hurrengo geltokia:

Paris

Gure erosketa gunea handitzera goaz. 10.000 denda baino gehiago Alde Zaharrera gehituko dira. Azaroaren 23an Parisera bi lagunentzako bidaia zoragarria zozketatuko dugu. Badakizu: jantxidendak, kafetegiak, Senna ibaiertzean paseatu, Rue Saint Honorén erosketak egin... Eskatu zure txartela, gorde ondo eta... bon voyage!



Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Artebe, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA



EDUARDO BERASATEGUI

Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Ozenal

San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA



**Harategia
Odriozola**

Harategi
Especializatua

Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4

TFNOA. 81 15 94

AZPEITIA



**KALITATEZKO
HARAGIA**

BUSTINZURIKO ERREBALA
TFONOA.: 943 811671

EUSKO LABEL



KALITATEA

CICLOS BENI

Loiolabide Tel. 150629

LARRAÑAGA KIROLAK

Arana, 3 Tel. 811365

ODRIOZOLA HARATEGIA

Arana, 14 Tel. 811015

EGOKI JANARIAK

Barrenetxe, 8 Tel.815490

ZABALA HARATEGIA

Arrabal, 8 Tel.811671

NEREA MERTZERIA

Arrabala Tel.812862

ZOKOA ANDREEN JANTZIA

Arrabala Tel.815056

ARKUPE KIOSKOA

En. Nagusia Tel.815207

AGIRRE OPARIDENDA

Erdi Kale, 1 Tel.811325

FURUNDARENA OINETAKOAK

Erdi Kale, 9 Tel.811143

URIA ALFONBRAK

Erdi Kale, 29 Tel.812337

AMENABAR JANARIAK

Etxe-alai, 3 Tel.150065

SAN SEBASTIAN HARATEGIA

Foru Ibilbidea, 4 Tel.811594

EGAÑA GOZOTEGIA

Goiko Kale, 10 Tel.811885

JAKA JANARIAK

Harzубia, 19 Tel.816549

ANDONI FRUITUDENDA

Harzубia, 29 Tel.812502

AITZAKI KIROLAK

J.A. Agirre, 4 Tel.150738

OTOLA KINKILADENDA

J.A. Agirre, 7 Tel.811366

SANTI LAZKANO KIROLAK

J. Artetxe, 1 Tel.811650

BALENCIAGA

J. Artetxe, 10 Tel.813400

ERROTAUNDI OKINDEGIA

Euskal Herria

MARTZALA OINETAKOAK

Olazko Amaren Plaza

BELOKI HARATEGIA

J. Artetxe, 21 Tel.151392

ARROSPIDE OINETAKOAK

Loiolabide, 1 Tel. 811914

EMAITZ LURRINDENDA

J.A. Artetxe, 11 Tel.813345

ORDULARI BITXIDENDA

J.A. Artetxe, 10 Tel.815244

ARANTXA HAUR JANTZIAK

J.A. Artetxe, 8 Tel.812429

BABESA GAZTE MODA

Urbitarte, 9 Tel.151369

IRIS MERTZERIA

La Salbe, 11 Tel.813298

IRATXO JOSTAILUAK

La Salbe, 24 Tel.150530

ZALDIKO LURRINDENDA

La Salbe, 15 Tel.151275

ICIAR ILEAPAINDEGIA

Loiolabide, 19 Tel.810217

ARADI KIROLAK

Olazko Amaren Pl., 3 Tel.150290

ZURI BELTZ JANTZIAK

Olazko Amaren Pl., 10 Tel.816656

MATXIN ZESTOAK

Pablo VI, 39 Tel.810116

UKABI ORDENAGAILUA

La Salbe, 39 Tel.150101

LUR LORA DENDA

Santiago, 11 Tel.150085

URKE ARGAZKIAK

Urbitarte, 4 Tel.151287

UROLA BIDAI AGENTZIA

Arrabal Tel.150804

M. GRAL . SEGUROS

Pablo VI, 5 Tel.151649

COOP. SUKALDEAK

Arana, 7 Tel.812309

URBISTONDO MARGOAK

La Salbe, 35 Tel.815781

SOINU ELEKTROGAILUAK

Okerra, 11 Zestoa Tel.147938

DUNPI JOSTAILUAK

Erdi kalea, 3 Tel.151890

Foru ibilbidea, 3 Tel.813969

BERTSOTAN PARRANDA

Erniarraitz bertso-eskolak antolatuta, kuadrilen arteko bertso txapelketa egingo da

Nerea Aranburu

Azpeitiko Erniarraitz Bertsozale Elkartek ekimen berri bat prestatu du: *Bertso Parranda 2002*. Antolatzaileen esanetan, ekintza honen helburuetako bat "bertso eskola kalera ateratzeara da". Bestetik, "asteburuetan eta, jendea juergan dabilenean, asko eta asko bertsolari bihurtzen dira. Txapelketa baten kutsua izango du bertso parrandak, baina ez da hain serioa izango".

Azaroaren 8an hasiko dira kanporaketak, eta zortzi taldek hartuko dute parte: Mak, Goxube, Puf, Erreka, Bota, Urrustil, Beti-Gazte eta Behetararak. Talde bakoitza hiru bertsolariz osatuta egongo da. Txapelketaren antolatzaileek garbi dute jendeak baduela bertsotarako intentzioa eta afizioa. "Lagunei eta inguruko jendeari komentatu zitzaion nola txapelketa hau antolatzeko asmoa zegoen. Batzuek izena eman zuten, eta gero bakoitzak bere lagunak ere ekarri zituen. Taldeak egiteko orduan, ahal den berdin egingen saiatu gara". Azkenik, guztira 24 bertsolari bilduko dira txapelketarako.

Lau kanporaketa saio egingo dira eta puntu gehien lortzen dituztenak bi final aurrekoetara sailkatuko dira. Bertso saioak



Fede Aranbarri, Erniarraitz elkartearen, prestaketa lanak egiten. Berak, hala ere, ez du 'Bertso parrandan' irteteko asmorik. / N. ARANBURU

Azpeitiko, Azkoitiko eta Zestoa-ko zenbait tabernetan izango dira, eta final nagusia Inuxente Egunaren bezperan jokatu da, abenduaren 27an, 00:00-etan Lagun Onak Mendi Bazkuran.

TALDEEN LANAK. Talde bakoitzak egin beharreko lanak, zortziko handian ofiziotan, zortziko txikian ofiziotan eta koplata ofiziotan aritzea izango dira. Gero, talde bakoitzak bakarrik jardun beharko du, bukaera emanda, oinak jarrita eta hitza gai bezala hartuta. Eta bukatzeko taldeko hiru bertsolariren artean puntutan. Jada bertso parranda txapelketarako hasi dira prestatzen. "Astero biltzen gara, asteartetan eta ostegunetan; ofizioki, oina emanda eta antzekoak lantzen ditugu. Oro har, bertso parrandako saioan egin beharreko lan berak egiten saiatzen ari gara".

“Asteburuetan, jendea juergan dabilenean, asko eta asko bertsolari bihurtzen dira”

Erniarraitz Bertsozale Elkartea

Gazteen Topaketak Urrestillan


N. Aranburu / Urte batzuk igaro dira Euskal Herriko bertsolari gazteak elkartu ez direla. Hori aitzakiaz harturik, azaroaren laugarren asteburuan —22an, 23an eta 24an—, elkartu egingo dira, Urrestillan, 2002ko Bertsolari Gazteen Topaketak ospatzeko. Ostiraletik igandera bi-

tarteko hiru egunetan, hainbat ekitaldiz gozatzeko parada izango dute Urrestillako eskolan bilduko diren Euskal Herri osoko bertsolari gazteek. Ostiral arratsaldean elkartuko dira partaide guztiak, eta afariaren ondoren, bertso eskola bakoitzaren emanaldi bereziak ikusi

ahal izango dira. Larunbateko egunari, eguerdiko triki-bertso poteoarekin emango zaio hasiera, eta bazkaldu ondoren, Pako Aristi idazle urrestildarren hitzaldia egongo da. Gauean, aldiz, bertso-afaria Imanol Lazkano eta Joxe Agirre bertsolari azpeitiarrekin. Igandean

egingo den bazkariarekin emango zaie aurtengo Bertsolari Gazteen Topaketei bukaera. Norbaitek joan nahiko balu, lotarako zakua eta 30 euro eramanez besterik ez du, bi afariak eta bi bazkariak ordaindu ahal izateko. Eta norbaitek topaketetan parte hartu nahiko balu, izena azaroaren 15a baino lehen eman beharko du. ●

AURKITU
EUROPAKO 10 HIRIBURU
S A R A



Asmoak burutik kendu ezinda?


Bada, Gaztekutxan aurkituko dugu,
elkarren artean, zure asmoentzako
burubiderik onena.

**BADAKIZU. GAZTEKUTXAN
HASTEN DA ZURE ETORKIZUNA**



gaztekutxa

www.gaztekutxa.net



z egon geldirik!

Emparañ kalea 8
943 - 151004

Xingola

Larunbatetan
DOAN
EGUNKARIAreki



Gaztetxoenean
egunkaria



Komikiak

Denbora-pasak

Posterrak

Erreportaiak

Ipuinak

Eskulanak...



ORAIN 16 ORRI
KOLOREETAN

Astialdian jolastuz ikasteko



Urriaren 26tik aurrera, larunbat eta igandeetan
euskarazko eta ingelesezko jokoak !!



DOMINO JOKOA

Lanbideak

Hiztegi jokoak:

hitzak euskaraz eta
ingelesez lantzeko.



LETRA JOKOA

Hizkuntza jokoak:

letrak euskaraz
eta ingelesez lantzeko.



BIKOTEEN JOKOA

Hitzak eta marrazkiak
binaka elkartzeko.



ZENBAKI JOKOA

Zenbakiak euskaraz
eta ingelesez lantzeko.



+ kupoia* + 4,4 €

*Kupoia, asteburu oro, ostiraletik igandera publikatuko

Euskal Idunak
Egunkaria



BIZIKLETA FALTA!

Aurtengoan, gurean izan ez dugun udaren bila joan nintzen irailean penintsulako hegoaldera eta hemen garesti izan ditugun eguzki izpi beroak topatu nituen, merke asko topatu ere.

Ez naiz ni, kanpoan dagoenean, herri-mina izaten duten horietakoa. Urte osoa herrian pasatu eta gero, kanpora joateko irrikitan egoten naizela aitortu beharra daukat. Jende berria ezagutu, bazter berriak ikusi, usain ezberdinak usaindu...

Aurtengoan, ordea, Euskal Herritik iristen ziren berriak ez ziren batere lasaigarriak. Garzonen aginduz, bazterrak nahasten hasiak zeudela jakin nuen, erabat urrun nengoen sentsazioa ezin izan nuen gaintetik kendu. Hemen bazterrak nahasten hasi bezain pronto, telefonoa astintzen hasi nintzen, norbaitek hemen gertatzen ari zenaren berri emateko itxaropenarekin. "Tentsioa da nagusi", esaten zidaten behin eta berriz, eta horrela, ezin lasai egon eguzki epeletan etzanda. Ezin egin itsuarena, itsua ez denak!

Telebistaren mandoarekin *zapping* egiteko dudan trebezi bera izatera iritsi nintzen iratiaren gurpilekin. Albistegiei erabateko arreta ipini nien hasiera batean, baina, gero, esaten zutena entzutea baino, ezer ez entzutea nahiago nuela erabaki nuen. Haserre, haserre amaitzen bainuen eguna.

Horrela, hondartzaz eta giro ederraz gozatzeko parada izan nuen. Bazirudien, azkenean, egun haiez gozatzeko gai izango nintzela. Eta horrela izan zen. Urteroko moduan, han ondo hartu gintuzten eta guk ere hoberena eskaini genien. Jende jatorra topatu izan dugu beti Murtzia aldean.

Penaz itzuli nintzen. Itzultzeak, egunerokora bueltatzea esan nahi zuen, egia gordinera. Trenez bidaia luzea egin eta gero, Euskal Herriatzean, sekulako euri-jasak harrapatu gintuen. Ez nintzen batere harritu, oso nirea egiten zitzaidan euri hura, gogotik ari zuen euri zaparrada galant hura.

Bitartean, behin eta berriz galdera bera egiten nion neure buruari, ea zer gertatuko zen aurrerantzean gure herriarekin, Euskal Herriarekin. Orain, badakit.

Azkenean, bidaia hasitako lekuan amaitzeko asmoz, Azpeitira iritsi nitzen. Bizi naizen etxe atariko teilatupera begiratu nuen. Begia luzatu nuen egunero egin ohi nuen moduan, aspaldian asko erabili gabea zegoen bizikleta bertan ikusteko asmoz. Morez margotua, hautsez betea, jarleku aldrebeskoa... baina nirea ordu arte eta beste norbaitena batek daki noiztik! Eta ez nintzen harritu, baina bai

LAPURRETAK.

Lapur-pesta, laburre

haserretu. Lapurtzen hasi eta baita bizikleta aldrebesa lapurtu ere! Kanpora joaterako etxera jaso izan banu...

Geroztik hona, besterik ere lapurtu nahi diguten sentsazioa areagotuz doa eta nahita ere, dena ezin etxera jaso!

Agian, datorren urtean, oporretatik itzultzean, gauza bakoitza bere tokian egongo da, baita nire bizikleta ere. Orain daukanak itzultzeko asmorik badu, mesede bat eskatu nahi nioke: margotu dezala berriro, premia bazeukan eta. Batek daki, agian datorren irailean, teilatupetan aurkituko dut. Eta, ez naiz harrituko.



‘Kontxu Odriozola’ liburua

Pako Aristi

Pako Aristik egin du Kontxu Odriozolari buruzko liburuxka biografikoa. Urrestildarra da Pako (1963), idazlea, kazetaria eta gidoilaria. Liburu honekin 28. liburua idatzi du Pa-

“Kontxu Odriozolak jenio bizia du, baina samurtasun handia dauka; benetako pertsona bat da, benetako aktorea”



• **LIBURUA:** Kontxu Odriozola • **IZENBURUA:** Antzerkia bizitzaren edergarri • **EGILEA:** Pako Aristi • **ARGITALPENA:** Azpeitiko Udala Antzerki Topaketak • **AURKEZPENEA:** Azaroaren 9an aurkeztuko da, Aktorearen egunean. Soreasun. 19:00etan • **GENEROA:** Biografia • **ORRIALDEAK:** 63 • **SALNEURRIA:** 6 euro • **SALTOKIAK:** Azpeitiko liburutegak

Aktorea, antzerkilaria, antzerkiegilea, irakaslea, bidaiari amorratua... zer ez da (izan) Kontxu Odriozola? Hona Azpeitiko Udalak Pako Aristiren eskutik egindako biografiaren bi zati eta argazkia

Txoko batean eserita

Kontxuren aita Felix Odriozola Agirre deitzen zen. Jose Antonio Agirre Lehendakariaren senitartekoa zen. Margolaria zen, marrazkigilea, eta tailagilea ere bai. Kontxuk asko maite zuen. Aita Azpeitiko antzerki talde amateurrei laguntzen ibiltzen zen beti, muralak egiten, dekoratuak, saltsa horiek. Eta laguntzaile nor izango zuen bada? Kontxu. “Ni Luisetako lokal hartara joaten nintzen aitarekin, eta hantxe egoten nintzen, eserita, isil-isilik, txoko batean, eta nik han gazteak ikusten nituen antzerkia egiten, eta ikusten nuen baita nola haserretzen ziren, eta batzuk negarrez ere bai, eskandalo batean ibiltzen ziren, oraindik ikusi egiten dut neska bat bere pertsonajea defenditzen, mutili kontra egiten. Aitak esaten zidan isil-isilik egoteko, eta ni obserbatzen egoten nintzen”.

Horra aktorearen bigarren oinarria: isilik egon eta begiratzea, bizitzaren taupada daramaten gauza horiek jasotzea, bereganatzea, gero bere erara eman eta agertuko dituenak.

Azpeitian garai hartan kultur ekimen ugari egiten ziren, eta Kontxuk, gaztea artean, zain jarraitzen zuen, “zeren haiek hots egin arte zain egon behar zenuen, Peñafloida abesbatzan kantatutakoa naiz, Gipuzkoa mailan asko ibili ginen”.

Baina zain egoten zen ume hura hazten zihonan, eta gero eta maiteago zituen antzerkiaren trikimailu guztiak. Kontua zerbait egitea zen, entretenitzea, bizitzari pizgarria aurkitzea. Eta publikoaren aurreko aktuazioen zain geratu gabe, antzerkia lagunarteko jolas algaragile bilakatu zen. “Eszenarioak ez dit beldurrik eman inoiz. Ateratzerakoan izan ohi den tentsio hori txikitatiki bizi izan dut nik, niretzat ez da gauza arraroa eszenariora irtetzea. Neguan, etxean, eskaileretan egiten genuen antzerkia, kantatu egiten genuen, dantza, disfrazatu egiten ginen. Koadrilan ere beti esaten zidaten, hi haizan, imitatu zan Don Lorentzo, edo Nartxixa katekistie, bale, egingoiñat ba, eta denak barrez edukitzen nituen”. Gero zezen korrida antolatzen zuten,

neskak *manola* bezala joaten ziren, mutilak torero moduan, eta beste batzuk zezenarena eginez.

Hala ere, bada Kontxuren pasadizo bat el-karrizketa batean irakurri diodana. Kaleko espaloietan aurkitzen zituen paper guztiak jaso eta irakurtzeko ohitura zeukan. Han aritzen zen *marca registrada*, *ingredientes* eta horrelakoak letzen. Igande goiz batean amak ogi bila bidali du. Kanean zihoala hor aurkitzen du karamelo paper bat lurrean. Hasi da hura irakurtzen, eta, bukatu duenean, despistatuta, karamelo papera bota beharrean dirua bota lurrera. Hor itzuli da etxera, ez ogi eta ez diru, karamelo paper zimurra besterik ez duela eskuetan. Etxekoek ez zioten ezer sinesten, nola bada? Ez dakit antzerkiaz baliatu zen une hartan bere ama lasaitzeko, baina zerbait beharko zuen.

Horra aktorearen hirugarren oinarria: bere begien aurrean daukan munduarekin ez konformatzea, eguneroko bizitzak agertzen dion egoera nolabait edertu eta aberastu nahi izana, aurkitzen dituen edota eskura uzten dizkioten tresnak erabiliz. Kontxuren kasuan, irakurtzea izan zen tresna bat. Eta beste bat: zinea. Nola ez.

Langabeziaren bentajak

Kontxu Odriozola eta Elena Irureta langabezian zeuden. 1986 inguru zen. Antzertin elkar ezagututa, lagunak ziren. Antzerkian geldialdi luzeak izan ohi dira lanik gabe. (...)

Behin elkarri esan zioten: “Hemen zeozker asmatu behar diñagu geuk, parre egitekoa, formato txikikoa, herriz herri ibiltzeko modukoa”. Euskeraz izango zen, baina erderaz hitz batzuk sartu behar baziren sartuko zituzten prolema-rik gabe. Euskal Herrian gisa honetako obra batentzat lekua bazegoela uste zuten, aurrez inork ahalegini egin ez bazuen ere. Beti kanpoko autoreen obrekin ibiltzen ziren. Eta hala ere, jendeak barre egiten zuen. Beraz, euskal umorea landuz, eta



‘GOENKALE’-N. *Goenkale* telebistako telesailan, telesailaren sorreratik bertatik Maria Luisa Galardiren papera egiten du Kontxu Odriozolak. Argazkian, *Goenkale*-n lankide duen Miren Gojenola aktorearekin ageri da.

euskal gizonak eta andreak nolakoak diren jakinda, funtziona zezakeela uste zuten. (...)

Arratsaldetan biltzen ziren Kontxu eta Elena, egunean pare bat orduz edo.(...) Azkenean 22 pertsonaia sortu zituzten, eta horiei gorputza emateko lau aktore: Kontxu Odriozola, Elena Irureta, Mikel Garmendia eta Jose Ramon Soroiz. Zuzendaria Eneko Olasagasti izan zen. Produktorea Kontxuren senarra izan zen, Imanol Zinkunegi. (...)

Obraren historia ezaguna da. Errezilen egin zuten aurrena, Loidi Azpi baserrian. Han baserritarrak ‘ku-ku-ku’ barrezka ikusi zituzten. Gero Zestoan eman zuten, eta jendeak berdin egiten zuen barre. Euskal Herri osoa pasa zuten. 200 emanaldi urtebetean. “Herri txiki askotara iritsi ginen, behin ere antzerkirik ikusi ez zuten lekue-tara, egiteko lokalik ere ez zeukaten lekue-tara. Baliarrainen, adibidez, arkupe batzuetan egin genuen. Gazteak kotxeak hartu eta baserritarrak ekartzera joaten ziren, eta antzerkia amaitu ondoren berriro baserrietara eramaten zituzten”.

Pertsonaia sinpleak, zuzenak, euskal izaera-ekin oso lotuak, euskaldun jendea euskaldun jendeari barre egiten, kanpoko interferentziarik gabe... hona *Ama Begira Zazu*-ren arrakasta esplikatzeko klabe batzuk. Dena den, geroztik egin diren saioek ez dute funtzionatu. Hona berriro arrakastaren misterioa.

Eta horra aktorearen zortzigarren oinarria: kanpotik lanik ez badator, nork bere barruan gaia aurkitu eta kanporatu. ●

Daukagun **kultura maite** dugulako,
euskal eskola nazionalaren bidetik
mundu zabalera.

ikasberri
A Z P E I T I K O I K A S T O L A

loiola etorbidea, 26 - 20730 azpeitia - tel 943 15 12 46 - faxa 943 15 17 76 - ikasberri@ikastola.net

ez ito Uztarria

- www.uztarria.com sortu arren (2,5 milioi pezetako aurrekontua), Azpeitiko Udalak batere dirurik ez dio emango Uztarriaren webguneari.
- www.uztarria.com-ek egundoko harrera, partehartzea eta adituen oso kritika onak eduki arren, Azpeitiko Udalak batere dirurik ez dio emango Uztarriaren webguneari.

ez ito Uztarria

- Uztarria herri aldizkaria berritu eta indartu egin den arren (diseinua, 12-16 orrialde gehiago hilero, langile erdia...), aurten Azpeitiko Udalak iaz baino diru gutxiago emango dio Uztarria herri aldizkariari.
- Herri aldizkariak iaz baino 3 milioi pezeta gehiagoko aurrekontua daukan arren, aurten Azpeitiko Udalak iaz baino diru gutxiago emango dio Uztarria herri aldizkariari.

ez ito Uztarria eta euskara

- Uztarria herri aldizkaria eta www.uztarria.com euskararen normalizazioarentzat oso tresna garrantzitsuak izan arren, Azpeitiko Udalak ez ditu behar bezala lagunduko.
 - Azpeitiko Udalak iaz martxan jarritako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, "Udalak zer egingo du? (...) Azpeitian euskararen zabalkundea arlo guztietan erabatekoa izan dadin behar adina baliabide eta tresna sortu eta garatu", dioen arren, udalak trabak jartzen dizkio Uztarriaren garapenari.
-

errespetatu Uztarria

- Udalak Uztarriari urrian! eman dio erantzuna, Uztarran urteko inbertsioak eta gastuak eginak dituenen.

errekonozitu Uztarria

- Errekonozitu Uztarriaren lana: kalitateko zerbitzu informatibo-komunikatiboa, euskararen normalizazioaren aldeko lana, 600 bazkideren babesa...

lagundu Uztarria...

- Eman Uztarriari behar dituen udal diru laguntzak: aldizkariari 3 milioi pezeta, webguneari milioi bat pezeta.

bestela...

- Uztarriak aurten 2 milioi pezetako zuloa eduki dezake.
- Azpeitiarren artean dirua biltzen hasi beharko du Uztarriak, udalak ez duelako behar bezala laguntzen.

Uztarriaren konpromisoa...


- Uztarriak ez du komunikazio proiektua aldatuko, Azpeitiko herriak onartu eta babestu egiten duelako.

argazkiyek: Kutxa Fototeka

Garai bateko azpeitiar herri kirolariak

● **HERRI KIROLAK.** Kutxa Fototekak azpeitiar herri kirolarien argazkiak ere gordeak ditu; ondorengoak dira. 1940. eta 1960. hamarkadakoak dira denak, herri kirolak plazak betetzen zituen garaietakoak. Azpeitian ere hala gertatzen zen; zezen-plaza bete-bete egoten zelako aizkolariak edota harri-jasotzaileak ikusteko.

● **KIROLARIAK.** Herri kirolean aritu zen azpeitiar ugari izan zen 1940. hamarkaditik 1960. hamarkada artean. Gutxi batzuk agertzen dira argazkiotan: *Agerre II.a, Errekartetxo, Aizpuru aizkolariak eta Arria I.a.* Baina ugari izan ziren: *Agieta, Urreta, Arria II.a, Keixeta, Atxumariya, Belaetxe, Agerre I.a* eta abar.



1





2

1. 'ARRIA I.a'.

Ignacio Orbegoza Juaristi *Arria I.a* aizkolari azpeitiarra, bere emazte eta semeekin, Mendiolatza-Aundi baserriaren aurrealdean (1940ko hamarkada).

2. AIZPURUTARRAK.

Aizpuru aizkolariak, lehen-gusuak biak, urrestildarrak (1940ko hamarkada).



3. 'ERREKARTETXO'.

Azpeitiko Santos Iriarte *Errekartetxo* harri-jasotzailea. Albizuri-Aundi harri ospetsua jasotzen (1947. urtea).

4. 'AGERRE II.a'.

Jose Antonio Lopetegui Aranguren *Agerre II.a* harri-jasotzaile azpeitiarra besoetan bi haur dituela, Asteasun (1960. hamarkada).

5. 'ERREKARTETXO' ETA DAMASA.

Santos Iriarte *Errekartetxo* harri-jasotzaile azpeitiarra eta *Damasa* indartsua, Eibarren (1947. urtea).

As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.
			1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

AZAROAK 2 (larunbata)

• FUTBOLA.

Hirugarren Maila: Lagun Onak-Durango. 17:00etan. Garmendipen.

• SASKIBALOIA.

Jostaldi Kirolak-Tarilleros S.K. 18:30ean. Kiroldegian.

AZAROAK 3 (igandea)

• ARGAZKILARITZA.

Udazkeneko Argazki Rallya. Azpeitiko Argazki Elkarteak eta Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta.

• ABESBATZA.

Oñatiko abesbatza. Udazkeneko Abesbatzak. 12:00etan. Esklabetako elizan.

• ABESBATZA.

Klapeida haurren abesbatza (Lituania). Zuzendaria: Zita Kariniauskiene. Udazkeneko Abesbatzak. 19:00etan. Sa-nagustinpean.

AZAROAK 4 (astelehena)

• ERAKUSKETA.

Josu Okina bergarar margo-lariaren lanen erakusketa. Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara. Azaroaren 22a arte irekita izango da. Antxieta Etxean.

azaroak 16 (larunbata) • 19:00 • Zapo Txoko Gaztelekuan



DIAPOESIA. *Diapoesia, ikusteko poemak eta entzuteko irudiak, poesia erreizitaldia eskainiko dute musika eta diapositibekin lagunduta Aitor Bengoetxea, Kepa Urbietta eta Igor Aranbarri azpeitiarrek azaroaren 16an. Hiru gazte hauek idatzitako olerkiak dira irakurriko dituztenak Zapo Txoko Gaztelekuan antolatu duen ekitaldian.*

AZAROAK 8 (ostirala)

• ANTZERKIA.

XX. Euskal Antzerki Topaketen aurkezpena. 12:00etan. Udaletxeko areto nagusian.

• BERTSULARITZA.

Bertso Parranda 2002. Erreka eta Beti-gazte taldeak. Aurkezlea Aitzol Iparragirre. 23:00etan. Korrale tabernan.

AZAROAK 9 (larunbata)

• ANTZERKIA.

XX. Euskal Antzerki Topaketak. Aktorearen eguna. Kontxu Odriozolari omenaldia eta Pako Aristik Kontxu Odriozolari buruz idatzi duen liburua-aren aurkezpena eta antzerki esketxak. 19:00etan. Soreasun.

Zine Klubeko filmak

• 'EL VOTO ES SECRETO'.

Babak Payami. Azaroaren 8an (ostirala, 21:30). Soreasun.

• 'AGUA TIBIA BAJO EL PUENTE ROJO'.

Shoei Imamura. Azaroaren 22an (ostirala, 21:30). Soreasun.

AZAROAK 10 (igandea)

• ABESBATZA.

Nemesio Otaño Abesbatza. Zuzendaria: Felix Zabala. Udazkeneko Abesbatzak. 12:00etan. Urrestillako elizan.

• ARETO FUTBOLA.

Lehen Maila: Jostaldi Kirolak-Transportes Lakunza. 16:00etan. Kiroldegian.

• ANTZERKIA.

Ai, Ama! antzezlanaren taula-tuko du Hika Antzerki Taldeak. XX. Euskal Antzerki Topaketak. 19:30ean. Soreasun.

AZAROAK 15 (ostirala)

• ANTZERKIA.

Ondo esan beharko antzezlanaren taula-tuko du Ramon Agirre aktoreak. XX. Euskal Antzerki Topaketaren egitarauaren barne. 21:30ean. Soreasun.

• BERTSULARITZA.

Bertso Parranda 2002. Mak eta Bota taldeak. Aurkezlea Ainara Betegi. Erriarraitz Bertsozale Elkarteak antolatuta. 23:00etan. Orkatz tabernan.



Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

JOIS - MAGAR



estetika
azken
teknikak

Enparan, 15-1
Tel. 813898



Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jet.es

bitxidenda



Plaza txiki, 7 - Telf. 943 81 23 67

Irudiekin, Iraurgi bailaren zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira



81 53 35

AZAROAK 16 (larunbata)

• FUTBOLA.

Hirugarren Maila: Lagun Onak-Ondarroa. 17:00etan. Garmendipen.

• ANTZERKIA.

Biblia antzezlan, Txalo Antzerki Taldearen eskutik. XX. Euskal Antzerki Topaketan barne. 21:30ean. Soreasun.

AZAROAK 17 (igandea)

• MENDIA.

Aratz-Araia egun guztirako mendi irteera. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 08:00etan. Plaza nagusitik.

• ABESBATZA.

Zestoako Abesbatza. Zuzendaria: Nerea Ugarte. Udazkenean Abesbatzak. 12:00etan. Esklabetako elizan.

• ANTZERKIA.

Pinotxo antzezlan taularatu-ko du aurrenekoz Dar Dar Antzerki Taldeak. XX. Euskal Antzerki Topaketak. 18:00etan. Soreasu Antzokian.

AZAROAK 24 (igandea)

• MENDIA.

Aizarnazabal-Indamendi-Urdaneta-Txiboaga goiz irteera. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 09:00etan. Plazatik.

• ARETO FUTBOLA.

Lehen Maila: Jostaldi Kirolak-Urretxu. 16:00etan. Kiroldegian.

azaroak 23 (larunbata) • 21:30 • Izarraitz Pilotalekuan



BELAUNALDIAK DANTZAN. Itsasi Dantza Taldeak aurten ospatzen ari den 25. urteurreneko emanaldiekin bukatzeko, *Lehena eta oraina* ikuskizuna eskainiko du azaroaren 23an. Ekitaldian, dantza taldean 25 urteotan dantzan aritu diren dantzariak parte hartuko dute, bai lehen urteetan dantzari ibilitakoak eta baita orain taldeko kide direnak ere.

• ANTZERKIA.

Natasha antzezlan taularatu-ko du Txalo Antzerki Taldeak. Natasharen paperean Nagore Aranburu azpeitiarra. XX. Euskal Antzerki Topaketak. 18:00etan. Soreasun.

• ABESBATZA.

Julian Barrenetxea Abesbatza. Zuzendaria: Jaime Amenabar. Udazkenean Abesbatzak. 19:00etan. Sanagustinpean.

tzak. 19:00etan. Sanagustinpean.

AZAROAK 29 (ostirala)

• BERTSOLARITZA.

Bertso Parranda 2002. Puf eta Behetarrak taldeen bertso jarduna. Aurkezlea Mikel Arregi. 23:00etan. Oñatz tabernan.

• BERTSO-ANTZERKIA.

Ai Martin antzezlan. Iraulio Pantalone Band Taldea. XX. Euskal Antzerki Topaketak. 21:30ean. Soreasun.

AZAROAK 30 (larunbata)

• FUTBOLA.

Hirugarren Maila: Lagun Onak-Amorebieta. 17:00etan. Garmendipen.

• ANTZERKIA.

Hau Paraderoa! antzezlan. Aktoreak: Loli Astoreka, Aitzpea Goenaga eta Eli Elizondo. XX. Euskal Antzerki Topaketak. 21:30ean. Soreasun.

ABENDUAK 1 (igandea)

• MENDIA.

Azpeitia-Izazpi-Mandubia egun guztirako mendi irteera. Lagun Onak M.B.k antolatuta. Irteera 08:00etan. Plazatik.

• ABESBATZA.

Azkoitiko Parrokiko Abesbatza. Udazkenean Abesbatzak. 12:00etan. Urrestillako elizan.

• ANTZERKIA.

Titibiliti. Bederen 1 Taldea. XX. Euskal Antzerki Topaketak. 18:00etan. Soreasun.

Zeuon ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerria (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarria@topagunea.com



ACADEMIA DE FRANCES
FRANTSES AKADEMIA

apunta
zaitez!

allons y



15 00 92

Bustinzuriko Arrabala, 12 - I

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu



Telf.: 943 81 51 87

Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA



Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdia:
943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

AMAIA TABERNA

Pintxo bereziak eta giro jatorria

Urritzkina, 943 150472 ♦ Erdi kale, 13





NEREA ARANBURU

“Basarriko lanak oso lotura haundiye eskatzen debe”

Edurne Ezenarro, Berastegi baserrikue da. Oin dala urte batzuk haren ama hasi zan gaztai eiten, ta gaur egun, biyek jarduten debe basarriyen gaztaiek eiten.

• Nolatan ta zergatik hasi zinen?

Oin 7-8 urte nere ama gaztagintzan murgildu zan. Ikastarueta juten hasi zan, mundu hau gehiyo ezautzeko. Harrezkeo honta dedikatzen gea.

• Ikusten da teknologri aurreraue daukuzuela. Ze prozesu erabiltzen dezue gaztaie eiteakuen?

Lehenik biltegiyen ardi danak biltzen die, ta gero, banan-banan jeitzi. Hortako *rotativa* izeneko makina baten pasau ta han jeitzi eiten die. Behin jeitzi ta geo, ardiyek beste kalea pasatzen die ta handik kanpora dijez. Ondoren makina hortatiken esnie automatikoki tanke batea pasatzen da. Eta tanke hortan, esnie 48 ordutan egongo da lau gradutako tenperaturan. Hor prestau ein behe izeten da esnie, gaztaie ein ahal izeteko.

• Ta behin denbora hori pasautakuen, zer eiten da?

Orduen gaztaie eiten hasten gea. Esnie berotu (30-32° arte) ta beti moitzen eon behe du. Ondoren gatzagiye bota, esnie gogortzeko, ta 30 minutuz euki. Gero poliki-poliki moztu eiten da ta hori ein ondoren, likidue ta solidue banatzen

deu. Iluntzie aldea, berriz, pisue jartzen diyou, hola ur dana hustu ta masa bakarrik gelditzen da. Moldetan sartu, tapatu eta ondoren *prentzatu* eiten deu. Hau dana ein ondoren, kaxetan ipini ta ude sekatzan danien kamaretan sartzen da.

• Lan asko eskatzen dun ofiziyue, ezta?

Bai, egiye esan basarriko lan hauek denbora asko ta lan asko eskatzen debe. Gainea, holako lanak oso lotura haundikuek die, hemen astie ta jaye danak berdinek izeten die gureztat.

• Gaur egun, zenbat ardi dauketzue?

Oin 600 ardi daukeu danea ta hoyek danak ondo zaitziek lan asko ematen du.

• Lehiaketetan parte hartzen al dezue?

Bai, normalien bai. Aurtengo urtien bi sari irabazi ditugu. Batetik, uztailien 25ien, Azpeitiyen Santiyutan, ta bestie, berriz, Bergaran irabazi gendun. Aurretik beste sari batzuk'e lortuta dazkeu.

• Non saltzen duzue gaztaie? Jende askok erosten al du?

Leku askotan saltzen da, bai dendatan, bai tabernatan... Baño gehyenbat zuzenean saltzen da, azoka plazan adibidez.

Nerea Aranburu

TXIKITEKO AMETSA. “Sekule ez det euki amets konkretu bat, oin ez naiz akordatzen behintzet. Nik uste det, ahal dan ondona bizitzie dala euki leiken ametsik onenetakue”

ZATOZ GURE ERAKUSTOKIA IKUSTERA

KALITATEAREN IZENA



www.lasao.com





Santi Lazkano Kirolak

Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50

Sare@informatika

Telekomunikazio Zerbitzuak & Informatika



Eskaintzen ditugun zerbitzuak eta produktuak

Ordenagailuen eta portatilen salmenta



Markako PC-ak

Gure markako PC-ak

Portatilak

Informatika zerbitzu teknikoa



Zerbitzu Tekniko azkarra

Mantenu Kontratuak

Periferikoen salmenta eta konponketak



Multifuntzioak

Formatu handiko inprimagailuak

Laserrak

Sare informatikoen instalazio eta kudeaketa



Sareen diseinua eta muntaiak

Sareen mantenua

Serbitzariak

Kontabilitate kudeatze programen ezartzea



Kudeaketa programak

Kontabilitate

Nominak

WEB orrien diseinua eta mantenua



2002 Corporate

2001 Tienda

2001 Escaparate

Erregistratzaile, balantza eta TPVen salmenta



Informatika aholkularitza



Enpresetarako Telefoniak zerbitzu guztiala



Azpeitia
Pablo VI 19 behea
943 157 321

Azkoitia
Julio Urkixo 10 behea
Telf: 943 85 36 60

Zarautz
Kale Nagusia 1 B
Telf: 94313338

Banatzaile Ofiziala
Euskalte